


eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ESTUDIOS EMPRESARIALES
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia)

Gradu Amaierako Lana

Gizarte Erantzukizuna Entitate Lokaletan

Egilea: **Alba Lozano Corral**
Tutorea: **Igor Alvarez Etxeberria**

Donostia, 2016

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



AURKIBIDE OROKORRA

1. Sarrera	4
2. Gizarte erantzukizunaren kontzeptua	5
2.1 Interes-taldeak	7
2.2 Gizarte erantzukizunaren helburu eta argudioak.....	9
2.3 Oinarrizko printzipioak	11
2.4 Normalizazioa	11
2.5 Gizarte erantzukizunaren eboluzioa	13
3. Gizarte erantzukizuna administrazio publikoan.....	16
3.1 Interes taldeak	18
3.2 Oinarrizko printzipioak	19
3.3 Adierazleak	20
4. Azterketa enpirikoa	23
4.1 Taula bakoitzaren azalpena	24
4.2 Datuen irakurketa	30
4.3 Euskal autonomia erkidekoaren egoeraren ikuspuntua.....	31
4.4 Hiru probintzien ikuspuntua.....	35
4.4.1 Araba	35
4.4.2 Bizkaia.....	38
4.4.3 Gizpuzkoa	41
4.5 Hiru hiribururen komentarioa	44
5. Ondorioak.....	46
6. Bibliografia.....	50
7. Eranskinak.....	54



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1.grafikoa: dimentsio hirukoitza. Iturria: european environmentak project management.....	6
2.grafikoa: interes-taldeen sailkapena. Iturria: nik egina, aeca-ko liburuan oinarrituta.....	7
3.grafikoa: biztanleriaren banaketa. Iturria: nik egina. 2.taulako datuetan oinarrituta.....	30

TAULEN AURKIBIDEA

1.Taula: 26 udalerrien azterketa, beraien web orrietan oinarrituta. Iturria: Nik egina. Azaltzen diren udaletxeetako web orrietan oinarrituta.....	26
2.Taula: EAE-ko eta hiru probintziatako analisia puntuz puntu. Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta.....	27
3.Taula: Aztertutako udalerrien rankinga. Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta.	28
4.Taula. EAE eta hiru probintzietako zerbitzuen estaldura total. Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta.....	29
5.Taula. EAE eta hiru probintzietan boterean dauden alderdi politikoen ehunekoak . Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta.....	29



1. SARRERA

Lana honen helburua nagusia, entitate lokaletan aplikatu eta jorratzen den Gizarte Erantzukizuna aztertzea izan da. Horretarako, lana zazpi zatitan banatu da.

Lehenik eta behin, lehenengo zatian sarrera labur bat egin da.

Ondoren, bigarren zatian, Gizarte Erantzukizuna terminoaren nondik norakoak definitu eta zehaztu dira. Gainera, honen ezaugarri nagusiak, oinarritzko printzipioak eta azkenen urteetako eboluzioa ere aztertu da.

Hori guztia argi geratu ostean, eta azterketara hurbiltzen joateko, hirugarren zatian, sektore publikoko Gizarte Erantzukizuna nolakoa den eta horren aurrean hartzen diren neurriak eta erabakiak aztertu dira. Araututa dauden eta nola, entitate pribatu eta publikoen arteko desberdintasuna edota eskaintzen diren zerbitzuak nola neurtu analizatu da.

Horren ostean, laugarren zatian, azterketa enpiriko bat egin da, non Euskal Autonomia Erkidegoko 26 udaletxeren web orriak aztertu diren, ea zein zerbitzu eskaintzen dituzten ikusi ahal izateko. Informazioaz baliaituta, hainbat ondorio atera ahal izan dira, bai EAE osotasunean hartuta, bai probintziak banaka aztertuta, baita hiriburuak soilik begiratuta ere.

Amaitzen joateko, bosgarren zatian lan guztiaren zehar aipatu diren puntu garrantzitsuenak azpimarratu dira, azken ondorio batzuekin batera. Azkenik, seigarren eta zazpigarren zatian daude, non bibliografia eta eranskinak aurkitzen diren. Azkenen honetan dauden taula, laugarren zatirako lortu den beharrezko informazioa aurkitzen da.

Gaiari dagokionez, geroz eta gehiago entzuten den arloa izanik, interesgarria izan da honi buruzko informazio gehiago lortu ahal izatea. Lan honetan, Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Graduan jorratzen diren bi gai lotu nahi izan dira. Hain zuzen ere, Kontabilitatea eta bestelako Informazio Sistemen aipamenean lantzen diren Kontabilitate Publikoa eta Gizarte Erantzukizuneko ikasgaia. Izan ere, graduan zehar hauei buruzko lanketa laburra dela kontuan izanda, gehiago sakondu nahi izan da, hauei buruzko informazio eta jakintza gehiago lortuz. Gainera, herritarrok udaletxeekin dugun harremana kontuan izanda, interesgarria izan da hauen jarduerara eta zerbitzuen informazio gehiago lortu ahal izatea.

Azkenik, erabilitako metodologiari dagokionez, bi eta hirugarren zatian bilaketa bibliografikoak erabili dira. Laugarren zatian, aldiz, gehien bat informazioa entitateen web orrietatik lortu da. Hala ere, zenbait informazio bilaketa dokumentaletik ere bildu da.



2. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN KONTZEPTUA

Aspaldian geroz eta gehiagotan entzuten den terminoa da Gizarte Erantzukizuna. Hau, XX.mendearen azken herenean garatzen hasi zen munduan zehar. Baina zer da Gizarte Erantzukizuna? *Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas* (AECA) araberan, enpresa batek gizartearekiko hartzen duen borondatezko konpromisoa da. Bere inguruan eta berarekin harremana duten pertsona eta interes-taldeekiko duen osaketa sozial eta jarrera arduratsuarekin, gizartearen garapena eta ingurumenaren babesa hitzematen duena (AECA, 2004). Bestalde, Europar Komisioak, bere aldetik, beste definizio bat ematen du. Honen ustetan, enpresek, beraien interes-taldeekin batera, gizarte-, ingurumen-kezka eta etika bezalako gaiei zuzenduta gauzatzen dituzten borondatezko enpresa-eragiketak eta oinarrizko estrategiak dira, gizarte-eskubide eta kontsumitzaileen kezkak ere kontuan hartzen dituztenak. (CE, 2015)


Beraz, konpromiso hori eta bere eragina elkartarekin harremana duten orori zabaltzen zaio, bai barne agenteei, langile, jabe edota akziodunei, baita kanpo agenteei ere, bezero, hornitzaile edota ingurumena izan daitekeen bezala. Hori horrela izanda, elkarre horren planteamenduak ere, modu koherente batean, horrekin bat etorri behar du. Gizarte erantzukizuna orduan, elkarre edota enpresen oinarrizko helburutik, alegia, mozkin ekonomikoak lortzetik, haratago doa. Izan ere, bere estrategiak hirugarrenen asebetetze maila lortzeko zuzenduta daude, horiek beti ere, neurtuta, egiaztatuta eta jakinarazita egongo direlarik. Honek, eragina izango du beraz enpresaren antolaketan, ez baitu epe laburreko mozkinak bakarrik lortu nahiko baizik eta bere balio handitu, epe luze batean abantaila konpetitiboak lortuz (AECA, 2004).

Planteamendu hau enpresa mota guztietan aplikatu daiteke, bere ezaugarriak zeintzuk diren kontuak hartu gabe: publiko edo pribatu, sozietate anonimo edo kooperatiba, baloreen merkatuan kotizatu edo ez... denek dute aukera, beraien enpresa edo elkarreterara erabakiak moldatzeko. Modu berean, hartzen diren erabaki horiek bai pertsona fisiko baita juridikoei ere aplikatuko zaizkie (AECA, 2004).

Hau guztia honela izanda, enpresek eragindako akzio honek dimentsio hirukoitza aztertzen du: ekonomikoa, soziala eta ingumenarena, betiere garapen jasangarri helburu nagusi bezala edukiz (AECA, 2004). Dimentsio hirukoitza hau, *Triple Bottom Line* bezala ere ezagutzen da. Termino hori John Elkingtonek sortu zuen 1994.urtea (Elkington, Enter the Triple Bottom Line, 2004). Garapen jasangarria, bere aldetik, egungo beharrak asetzen dituen garapena da, betiere, ondorengo belaunaldien beharrak aseak ez izateko arriskua sortu gabe. (ONU, Asamblea General de las Naciones Unidas, 2015)



1.Grafikoa: *Dimentsio hirukoitza.*



Iturria: *European Environmentak Project Management. 2015eko iraila*

Beraz, enpresek hiru dimentsio horien asebetetzea bilatuko du orduan, guztiekin batea garapen jasangarri bat lotzeko. Gizartea osatzen duten pertsonak garatzea eta ondorioz gizartearen ongizatea handitzea eta ingurumena zaindu eta babestea dira Gizarte Erantzukizunaren oinarritzko elementuak (AECA, 2004). Horiei enpresak dituen helburu ekonomikoak gehitzen zaizkio, izan ere, ezin gara ahaztu, enpresa batek bizirauteko mozkin minimo batzuk eduki behar dituela.

Baino ingurune hauek ez daude enpresaren menpe eta horrek elkarrean jarduera erabat baldintzatzen du. Izan ere, beraien helburuak, epe luzeko asmoak edo merkatuaren eskariak alda daitezke horietako ingurune batek eraginda (AECA, 2004).

AECAk esanda, Gizarte Erantzukizuna gehien baldintzatzen duten faktoreetako batzuk globalizazioa, sektore pribatuak publikoaren gain hartu duen garrantzia, teknologia berriak, ingurumenarekiko biztanleriak hartu duen kontzientzia, lan egiteko era berriak eta enpresei beraien agenteek eragindako presioa eta beraien ospea galtzeko beldurra dira. (AECA, 2004)

Beraz, horren arabera, enpresak aldaketa batzuk egin beharko ditu bere barne antolaketan ere, hala nola, kudeaketan eta barne kontrolean, informazio eta auditorietan, kanpo azterketa eta komunikazioan eta estrategia zuzendaritzan. (AECA, 2004) Aldaketa hauek sistematikoak izan beharko dira, aurrez aipatutako faktoreei aurre egiteko eta hirugarrengoekin konpromiso hori mantentzeko.

Ondoren, hirugarrengo horien nondik norakoak azalduko ditugu, zehazki, interes-taldeak edo *stakeholderak* zeintzuk diren zehatuko dut.




2.1 INTERES-TALDEAK

AECAREN definizioari jarraituz, Interes-taldeak, edo *stakeholderak* gizatalde eta norbanakoek osatzen dituzte, eta era batera edo bestera enpresaren izate eta jarduerak horiek kaltetzen dituzte, zuzeneko edo zeharkako interes legitimo batekin. Enpresaren izanak ere badu zerikusia, eta horrek eragina du enpresaren bizirautearen eta markatutako helburuen erdiespenean. (AECA, 2004)

Talde hauek multzokatzeko garaian, sailkapen mota ezberdinak daude. Horietako adibide bat, Wheeler eta Shillampak eginikoa da. Hauek, lehen mailako sozialak (langileak, hornitzaileak, akzionistak...) eta ez sozialak (ingurumena eta etorkizuneko belaunaldiak) eta bigarren mailako sozialak (eragile soziala, lehiakideak, administrazio publikoa...) eta ez sozialak (ingurumen eta animalien defentsarako taldeak) bereizten zituzten (Álvarez, 2009).

Beste adibide bat, eta lan honetan erabiliko duguna, AECAk proposatzen duena da. Horrela, bere tipologiaren arabera banatzea ditu, barne interes-taldeak eta kanpo interes-taldeak osatuz (AECA, 2004). Izenek zehazten duten moduan, barne interes-taldeak elkartearen egituraren barruan aurkitzen direnak dira eta kanpo interes-taldeak, aldiz, egituratik at daudenak.

2.Grafikoa: *Interes-taldeen sailkapena.*



Iturria: *Nik egina, AECA-ko liburuan oinarrituta. 2015eko iraila*



Interes-talde hauek, beraien ezaugarrien arabera, interes ezberdinak edukiko dituzte enpresarekiko. Interes hauek, komunak edo espezifikokoak izan daitezke (AECA, 2004).

Komunetan, *stakeholders* guztiei eragin edota inporta dieten beharrak egongo dira. Horietako batzuk, informazioaren gardentasuna, partaidetza eta elkarren arteko onurak izango dira (AECA, 2004). Izan ere, arrazoi batengatik edo bestearengatik, enpresaren parte izango dira, eta horrela sentitu nahiko dute. Partaide zaren momentutik, bertako informazioa edukitzea interesgarria eta beharrezkoa izango da erabakiak hartzeko garaia, eta horretarako informazioa lortzeko aukera eduki beharko dute. Gaur egun Internet bezalako teknologia berriekin hori errazagoa da. Horrekin batera, kontuan eduki beharko dugu beti, bi aldeetako partaideen helburuetako bat onurak lortzea ere izango dela.

Behar espezifikoek dagokionez, bi multzotan aztertuko ditugu: barnekoen eta kanpokoan interesak eta beharrak.

Barnekoei dagokionez, hemen bi talde aipatuko ditugu. Bata, langileak dira. Hauek, beraiek kontratuak bidezko baldintzak edukitzea nahiko dute. Ordu-tegiak, soldatak, beraien osasuna eta segurtasuna babestea, lan baldintza egokiak edukitzea, beraien iritziak kontuan hartzea eta diskriminatuak ez sentitzea, berdintasuna edota formazioa eskaintzea izan daitezke horietako baldintza batzuk. Gaur egun, enpresek duten erronketako bat langile kualifikatuak lortu eta horiek mantentzea da. (CCE, 2001)

Bestea, jabeak eta akziodunak dira. Hauek, beraiek egindako inbertsioa berreskuratzea eta hori errentagarria izatea nahiko dute. Gainera, akziodunen kasuan, epe luzeko inbertsioa egiten badute enpresak arriskuekiko duen jokaera ere interesatuko zaie. Akziodunen izaeraren arabera arrisku ekonomikoek gain, ingurumen- edota arrisku sozialen gain hartzen diren neurriez ere informatuko dira.

Barne agentei beharrezko garrantzia ematea, enpresaren ekonomiari modu zuzen edo zeharkako batean eragin diezaioke. Izan ere, langileak gustura badaude eta lan giroa ona bada, hauek enpresaren partaide sentitu edo beraiek enpresarekiko duten konpromisoa handitu dezakete, produktibitatea handituz. Bestalde, ospea lortuz gero, modu ez zuzen batean, inbertitzaile edota bezero berriak lortu ditzake enpresak. (CCE, 2001)

Beste alde batetik, kanpo interes-taldeak daude. Aurrez aipatu bezala, talde honetan hainbat azpialde aurki ditzakegu (AECA, 2004).

Lehengoa, bezeroak dira. Hauek, beraien beharrezkoen asetzeari hobekien betetzen duen produktu edo zerbitzua erosiko dute. Horregatik, garrantzitsua da enpresentzat merkatuko eskaera ondo ezagutzeari eta bezeroak ahal duten moduan hezteari, gizarte eta ingurumenerako onuragarriak dituen ohiturak hartu ditzaten. Egun, geroz eta ohikoagoa da jarrera horiek errespetatzen dituzten produktuak ekoiztea (produktu ekologikoak, giza-eskubideak errespetatzen dituzten politikak burutzea...), horiek enpresarentzat desberdintze faktore bat izaten direlarik. Bestalde, produktuek prezioa, kalitatea, segurtasuna, informazioa, bezeroak enpresarekiko lortzen duen konfiantza eta erosketa baino lehen, bitartean eta ondoren



enpresek eskaintzen dieten arreta dira bezeroek beraien aldetik erosketak egiterakoan erabakigarriak egiten zaizkien oinarrizko baldintzak.

Bigarrena, hornitzaileak dira. Enpresak horiekin kontratua badute, hornitzaileek hori betetzea nahiko dute, bai epetan, bai prezio eta ordainketen politiketan, baita beste edozein aspektutan ere. Horrez gain, hornitzaileek, bi alderdiek posibleak lortzea nahiko dute, beti ere konkurrentzia askea eta gardentasuna kontuan hartuta.

Lehiakideei dagokionez, legeak arautzen duen merkatu askeaz gain, beraien arteko jarrera leiala eta zenbait kasutan itun estrategikoak interesatuko zaizkie. Azken hauek bien onurako bada eta betiere legea errespetatuz burutuko dira.

Ondoren agente sozial, administrazio publikoa, toki-komunitatea eta gizartea orokorrean batuko nituzke. *Stakeholders* hauek legea betetzeaz gain, beraien eta inguruko interesak betetzea nahiko dituzte. Bakoitzak bere eremuan, baino denek horren ongizatea eta garapen jasangarria gauzatzea esperoko dute.

Azkenik, ingumena eta ondorengo belaunaldiak aipatuko ditugu. Nahiz eta hauek zeharkako talde bat izan, geroz eta pisu handiago hartzen ari dira enpresetan. Izan ere, gizarteak hauekiko arreta eta kontzientzia handiagoa du urtez urte. Beraz, enpresek ondorengo belaunaldiek baliabide naturalak eduki ditzaten oreka naturala eta baliabide ez berriztagarrien zaintza kontuan izan beharko dute.

2.2 GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN HELBURU ETA ARGUDIOAK

Orain arte, Gizarte Erantzukizuna zer den eta bere partaideak azaldu ditugu. Baina enpresek zergatik edo zertarako izan nahi dute gizartearekiko erantzule?

Gizarte Erantzukizunaren oinarrizko helburuetako bat enpresaren zuzendaritza eta kudeaketa elementu ezberdinen hornitzea da. Modu honetan, enpresek, dimentsio hirukoitza kontuan edukita, interes-taldeen beharrak asetzeko beharrezko hobekuntzak egingo dituzte bere funtzionamenduan, garapen jasangarri bat lortzeko asmoz. (de la Cuesta, 2004)

Aurrez esan bezala, gaur egungo gizartean enpresek duten botere soziala nabarmena da, beraz, garrantzitsua da horiek horrelako jarrerak hartzea, gizarteak ere, orokorrean, bere jarrera aldatzen joan dezan.

Baina jarrera horiek, ez dira positiboa gizartearentzat soilik. Enpresek ere etekinak lortzen dituzte politika horiek ezartzerako garaian. Berau justifikatzeko, Marta de la Cuestak (de la Cuesta, 2004) hainbat argudio ematen ditu eta nagusienak adieraziko ditugu ondoren.

Lehenengoa, argudio morala edo *moral case* izango da. Gizartean, geroz eta garrantzi gehiago ematen zaio gizartearekiko erantzule izateari. Norbanakoaren interesa lortzeko nahia baino garrantzitsuagoa da talde baten interesak lortzea. Beraz, enpresek jarrera erantzule hori



izatearen garrantzia handitzen ari dira urtez urte. Aurrez aipatutako barne eta kanpo interes-taldeak errespetatzea eta horien ongizatea bilatzea da gizarteak nahi duena. Kostuak murrizteko helburuarekin lan kontratu txarrak edo adingabekoen esplotazioa, baliabide naturalak xahutzea edota lehia perfektua ez errespetatzea dira gaur egun gizarteak zigortzen dituen jarrera horietako adibide batzuk. (de la Cuesta, 2004)

Bigarren argudioa, negozio edo *business case* da. Hemen Marta de la Cuesta enpresek beraien interes-taldeekin duten harremana lortzen dituzten emaitza ekonomikokin elkartzen ditu. Egun, geroz eta enpresa gehiagok, bere balantzetan, finantza kapital eta ibilgetu materialaz gain, sozial, gizatiar eta adimen-kapitala ibilgetu ukiezin bezala gehitzen dituzte. Horiek, merkaturatzeko zailak izan arren, gizarteak geroz eta gehiago baloratzen ditu, enpresaren ostea handituz. Horretaz gain, horrelako politikak ezartzen dituzten enpresek boluntarioki eta jarrera pro-aktibo batekin jokatzan dute, *First mover advantage* lortuz. Izan ere, hobekuntzaren bat dakarren edozein politika lehiakideak baino lehenago jarriz geroz, enpresari, epe luzera, lehiakideengandik desberdintzeko abantaila bat ekarriko dio. Abantaila hauek lotzea garrantzitsua da, izan ere, gaur egun, inbertitzaile askok nahiago dute dimentsio hirukoitzean arriskurik gabe kudeatzen duten enpresetan inbertitu. Horregatik, geroz eta ohikoagoa da enpresek beraiei buruzko informazioa ez-finantzarioa publikoki eskaintzea. (de la Cuesta, 2004)

Azkenik, argudio sozialak edo *social case* dago. Aurrez aipatu dugun bezala, Gizarte Erantzukizuna enpresek hartzen duten borondatezko konpromiso bat da. Beraz, enpresek, berain nahien arabera hartuko dituzte neurriak dimentsio hirukoitzarekiko. Bestalde, badaude zenbait aspektu interes publikokoak direnak, aldaketa klimatikoa edo baliabide ez berriztagarrien erabilpena adibidez. Hauek, interes pribatu balira bezala hartzen dira askotan, eta ez da gauza bera enpresarentzat soilik diren onurak eta munduarentzat orokorrean direnak. Horregatik, gizarte edo orokorrean munduarentzat onuragarriak diren jarrera minimoak neurtuak izan daitezen edo ez horrek, hainbat eztatanda piztu izan ditu. Onura horiek desberdindu nahi dituztenek, interes publikoen aurrean hartu beharreko jarreraren baldintza minimoak zehaztea eskatzen diete gizartearen ordezkari publikoei. Egun, dagoeneko badaude baldintza minimo horiek zehazten dituzten arauak¹. (de la Cuesta, 2004)

Beraz, ikusi daitekeen moduan, arrazoi ezberdinak daude Gizarte Erantzukizunaren aplikazioa justifikatzeko enpresaren eremu ezberdinetan. Gainera, hura ondo aplikatuz gero, lehiakideengatik bereizteko elementu bat izan ditzake, hori enpresarentzat abantaila argi batean bilakatuko delarik.

¹ ONU-k, 2003ko abuztuaren 13an onartutako “Normas sobre las responsabilidades de las empresas multinacionales y otras empresas con respecto a los derechos humanos”



2.3 OINARRIZKO PRINTZIOAK

Bestalde, enpresek, borondatezko konpromiso hau hartzeko garaian, Gizarte Erantzukizuna osatzen duten oinarrizko printzipio batzuk bete behar dituzte. Printzipio hauek erakundeen jarrera arduratsua neurtzen duten oinarrizko arauak dira. AECAk ondorengo hauek proposatzen ditu (AECA, 2004):

Printzipiorik oinarrizkoena **gardentasuna** da eta ezinbestekoa da interes-taldeekin harremana izateko. Horretarako, funtsezko tresna komunikazio da. Gardentasunarekin, enpresari lotuta dauden interes-taldeen entitatearen jarrerari buruz informazioa lortu ahal izango dute.

Honekin batera, **egiaztatze** printzipioa dago. Izan ere, aupatutako biak ezinbestekoak dira hirugarrengok enpresarekiko sinesgarritasuna lortzeko. Azken printzipio hau aditu independente baten frogatu beharko du beti.

Horrez gain, **materialtasuna** dago. Enpresak, bere jarduera gauzatzeko garaian, dimentsio hirukoitzaren ingurune guztien beharrak hartu behar ditu kontua. Dimentsio batera mugatuz gero, ez du printzipio hau beteko. Hala ere, azken kasu hau gertatzen bada, materialtasun printzipioa betetzeko, gutxienez, landu ez diren beste dimentsioetako estrategien epe luzeko diseinua egina eduki beharko lukete.

Gainera, helburuak zehazterakoan **ikuspegi zabala** eduki behar du erakundeak, bere ekintzen eragina ahal den eremu zabalenera iritsi daitezen. Bestalde, helburuen eta kudeaketaren **hobekuntza etengabekoa** izan beharko du, errealitatera ahalik eta hobekien moldatzeko.

Azkenik, aipatu Gizarte Erantzukizuna alderdi ekonomiko edo teknikitik gailentzen den **izaera sozialaren sinesmena** duela eta izaera horretan gizakiak duen papera eta balioa nabarmentzen du.

2.4 NORMALIZAZIOA

Aurrez aipatu dugun moduan, dagoeneko badauden zenbait arau Gizarte Erantzukizuna nolabait arautzen dutena. Baina, oraindik, enpresentzat borondatez hartutako konpromiso bat da.

Hala ere, mundu mailan badauden garapen jasangarrian aldekoak diren zenbait ekimen politika, batez ere, ingurumenarekin erlazionatuta daudenak.

Hauek aipatzerako garaian erabiliko den sailkapena Igor Alvarezek bere artikuluan erabilitakoa izango da (Álvarez, 2009). Honek, erakunde internazionalak egindako ekarpenak eta enpresaren kudeaketara zuzenduta daudenak bereizten ditu.



Lehenik, mundu mailan eragina duten erakundeak aipatuko ditugu. Hemen lau dira nabarmendutakoak.

Beharbada, ezagunena Nazio Batuen Erakundea (ONU) da. Mundu mailako erakunde honek Gizarte Erantzukizunari buruz konferentzia ugarietan aztertu dute. Estokolmoko konferentzia (1972), non ingurumeneko gaiak izan ziren nagusi; Rioko deklarazioa (1992), non ingurumenaz gain faktore sozial eta ekonomikoak ere aztertu ziren; edota garapen jasangarriaren buruzko Johannesburgoko Goi bilera (2002) dira horietako batzuk. Bilera horiez gain, ONUk bi mekanismo garrantzitsu gauzatu ditu: Kyotoko protokoloa eta enpresen mundu mailako ituna. Protokoloarekin, erakunde honek, klima aldaketaren kontrako mekanismo internazionala gauzatu zuen lehenengo aldiz. Horretarako industrializatuta herrialdeei lortu beharreko helburuak zehaztu zizkien gas kutsakorren emisioa gutxitzeko. (Álvarez, 2009) Itunarekin, aldiz, gizarte eskubide, lan, ingurumena eta beste zenbait arlo kontuan izanda, enpresen estrategiak eta lanak bateratu nahi zituen, oinarri unibertsalak ezarriz. (ONU, Naciones Unidas, Global Compact, 2015)

Beste erakunde bat, Lanaren Erakunde Internazionala (OIT) da. Honek, 1977an Gizarte-politika eta enpresa multinazionalen oinarri hirukoitzen deklarazioa argitaratu zuen. Bertan, lan munduko baldintzak eta harremanak zehazten dituzten materiala eskaintzen die enpresa nahiz gobernuetan parte hartzen duten interes-talde guztiei. (Álvarez, 2009)

Internazionalki garrantzia duen beste bat, Lankidetzaren eta Garapenaren Erakundea (OCDE) da. Honen ildo politikoa publikoekin bat datozen jarduerak enpresan gauzatzea bermatzea da, besteak beste. Beste helburu garrantzitsuenetako bat gizartearen eta enpresen arteko konfiantza indartzea da. Helburu guzti horiek, gobernuek enpresa multinazionaleri egindako borondatezko gomendioak dira, non oinarri eta arau etikoak aipatzen diren. (Álvarez, 2009)

Azken aipatuko duguna, Europak Batasuna (UE) da. 2000.urtean Europar batzordeak Ingurumen-erantzukizunari buruzko Liburu Zuria argitaratu zuen, enpresen arduragabekeriaren ondorioz sortutako hondamendi ekologikoak azpimarratuz. Liburu honekin, bakoitzak berak egindako hondamendien kargu egitea lortu nahi zuen batzordeak (Álvarez, 2009). Ondoren, Parlamentuak 2003/51 zuzentaraua onartu zuen, non enpresa taldeen kudeaketa txostenetan ingurumen eta enpresaren pertsonalaren inguruko informazioa barneratzearen garrantzia goraipatzen zen (UE, 2003). Azkenik, 2005-2008 urteen artean, Batzordeak Europar Batasuna osatzen duten herrialdeei, bere enpresetan garapen jasangarria aurrera emateko, Gizarte Erantzukizuna barneratzearen alde egitea proposatu zien, termino hau Europara zabaltzeko helburuarekin.

Sailkapen honetan, bigarrenengo taldea, enpresaren barne kudeaketan eragina duten ekimenak daude. Hemen bi azpi multzotan banatzen ditu Álvarezek: kudeaketa praktikak eta informazioa egiaztatzeko arauak (Álvarez, 2009).



Kudeaketa praktikei dagokionez, hemen, ISO 26000 delako kudeaketa instrumentua bakarrik azalduko dut. ISO edo beste modu batera esanda Normalizazioaren Erakunde Internazionala, gobernutik at dagoen erakunde independentea da. 1946.urtean hasi ziren industriako estandarizazio internazionala koordinatzen eta bateratzen. Gaur egun, 162 herrialde daude barneratuta dagoeneko. Hainbat alderdi estaltzen dituzte, horretarako 19.500 baino estandar gehiago argitaratu dituztelarik. ISO 26000 (2010) mugatzen bagara, honek Gizarte Erantzukizunaren borondatezko konpromisoa sustatzen du helburu eta kontzeptuen definizioak eta ebaluaketa metodoak ematen ditu. (ISO, 2015).

Bestalde, informazioa egiaztatzeko arauak daude. Atal honetan, EMAS aipatuko dut. EMAS, *Eco-Management and Audit Scheme*, Europar Komisioak gauzatutako baliabidea da. Honekin, enpresek ingurumenean duten eragina ebaluatu, jakinarazi eta hobetzea du helburu. Hau ere, borondatezko mekanismoa da. Enpresek EMASen erregistratu ahal izateko, ingurumenean duten eragina azaltzen duen txosten bat, Ingurumen-txostena, argitaratu beharko dute. (EMAS, 2015)

Beraz, ikusi daiteke Gizarte Erantzukizunari buruz txosten edo baliabide ugari eskaintzen zaizkiela enpresei mugimendu hau aurrera eraman dezaten. Ingurumen-txostenak, txosten sozialak... (Álvarez, 2009). Hala ere, gaur egun internazionalki erabiliena eta garrantzitsuenetako bat *Global Reporting Initiative* (GRI) da (Moneva, 2005).

GRI txostena 1997an gauzatu zuten CERES (*Coalition for Environmentally Responsible Economies*) eta PNUMA (*Programa de Naciones Unidas para el Medio Ambiente*) erakundeek. Gobernu kanpoko erakunde independente diren horiek, ingurumen-, gizarte- eta aspektu ekonomikoak definitu, neurtu eta gauzatzen zituen txosten bateratua sortu nahi zuten. Urteetan zehar, GRI txostena, betiko finantza txostena balitz bezala diseinatu eta egiaztatzea nahi izan dute (Álvarez, 2009).

Enpresek bere interes-taldeko agente ekonomiko eta sozialekin loturak lortzeko beharra dute, eta horretarako GRI txostena baliabide egokia da. Bestalde, *stakeholders*ak, bere aldetik, enpresari buruz finantza informazioaz gain, beste informazioaren berri ere izango du. Gainera, mundu mailako txosten bateratua denez, erraztasunak ematen ditu enpresen arteko konparazioak egiteko garaian (Álvarez, 2009). Beraz, hirugarrengeontzat errazagoa izango da interesatzen zaizkion enpresa edo erakundeen informazio lortu eta hori konparatzea.

2.5 GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN EBOLUZIOA

Gizarte Erantzukizunaren eboluziora dagokionez, oso zaila da bere hasiera zein den zehaztea. J.M. Rodríguez-ek Ekonomiaren Euskal aldizkarian argitutako artikulua jarraituz gero (Rodríguez, 2007), antzinaldiko gizarteak dagoeneko ingurugiroaren baliabideak nola kudeatu, gizarte harremanak nola zuzendu... bilatu nahi izan dituela ikus dezakegu. Hala ere, lan honetan, XX.mendearen azken herena hartuko dut abia puntutzat, aurrez esan bezala, orduan hasi baitzen termino hori bere horretan publikoki agertzen eta.



XX.mendearen hasieran, nahiz eta hainbat gizarte erakundeen elkarketa boluntarioa gizartearen ongizatea bilatzeko erantzukizuna onartzen hasten diren eta XX erdialdean gai horiei buruzko sektore pribatuak zuten eraginaz jabetu, J.M. Monevak Gizarte erantzukizunaren abiapuntua 70.hamarkadan jarria du (Moneva, 2005). Honen ustetan, Gizarte Erantzukizunaren hastapenetan, termino hori izen horrekin ezagutu ez arren, hamarkada honetan gizartearen eta ingurugiroari buruzko hainbat aspektuei buruz argitaratzen hasi ziren, oinarri sozial bat osatzeko asmotan. Hala ere, saiakera hauek ez ziren arrakastatsuak izan, arrazoi sozial eta ekonomikoak direla medio. Izan ere, gizarte horretan ez zegoen enpresek gizartean duten eraginaren kontzientziarik eta gizartearen antolaketa eskasa zen. Guzti horri, gobernua bezalako erakundeen interes eskasa gehitu behar zaio, hau ere, faktore garrantzitsua izan zelarik.

Arrakasta falta hori 1992an Rio de Janeiron ospatu zen Lurraren Goi bileran aldatze hasi zen. Bertan, enpresek ingurugiroan zuten eragina kontrolatzeko hainbat arau sustatu ziren, enpresek eragin hori kontrolatzeko kudeaketa sistema ezberdinen ezarpenarekin erantzun zutelarik. Kudeaketa sistema horietako batzuk ISO 14.000, ekoizpeneko ingurumen kudeaketaren estandarizazioa, eta lehen aipatutako Eco Management and Audit Scheme (EMAS) izan ziren. Honekin batera, garapen jasangarriaren kontzeptua gizartera zabaltzen joan zen alderdi sozial ezberdinetan birplanteatu zelarik. Alderdi horietako batzuk ekonomikoa eta ingurugiroarenak dira eta horren ondorioz, gaur egun erabiltzen diren gizarte txosten, oinarri sozial eta Gizarte Erantzukizun eta jasangarritasuna indartu ziren. (Moneva, 2005)

90.hamarkada honetan, erantzukizun honen kontzientzia nabarmenki handitzen joan zen. J.G. Correarek aipatzen duen moduan (Correa Jaramillo, 2007), merkatu liberalizazioak eta globalizazioak sektore ezberdineko kompetentzian eragina izan zuten. Enpresek merkatu horretan bizirik mantentzeko desberdintze argudioak behar zituzten eta gizartearekiko zuten erantzukizuna horietako bat zen. Enpresek hirugarrenarekiko aurkezten zuten irudi gardena, besteak beste, garrantzitsua zen beste enpresengandik bereizteko.

Beraz, termino hau pixkanaka zabaltzen joan zen mundu guztiko enpresetara, pribatu nahiz publikoetara, merkatuan gizartearen alderdiei garrantzia ematen ez zieten enpresengandik bereizteko. Horren adierazle garbia da, gaur egun moduan, enpresak legez ez daudela behartuta gizartearekiko erantzule izatea, baina merkatuak, ordea, geroz eta garrantzi handiagoa ematen diola aspektu horri. Merkatuak jasan zuen aldaketa hori, gizarteak aspektu etiko eta kezka soziala bezalako gaiekiko jarrera aldaketa baten ondorioa izan zen. Izan ere, garai horretako gizartean hezkuntzaren maila handitzeak, lan balditzen eskubideei buruz edota alderdi sozio, politiko eta ekonomikoko erregularizazioen eboluzioak gizartearen jarrera aldaketa ekarri zuen (Correa Jaramillo, 2007).

Beraz, enpresek gizartearekiko sentibilizazio hori bilatzen hasiko ziren, ez bakarrik beraien irudia hobetzako baizik eta epe luzeko lehiakortasuna lortzeko, 'nire irabaziak, zure irabaziak' (win-win estrategia) leloa oinarritzat hartuta (Correa Jaramillo, 2007). Estrategia



honekin, partaide guztiak erlazio horrekin irabaziren bat edukiko zutela zioten, izan ere, esan bezala, kontzeptuak aspektu sozial, politiko eta ekonomikoetara zabaltzen dira, eta partaide guztiak, modu batera edo bestera, interes-taldearen bat osatzen duten aldetik, enpresek hartutako konpromiso horrekin etekin bat lortzen dutela suposatzen da (Elkington, *Towards the Sustainable Corporation: Win-Win-Win Business Strategies for Sustainable Development*, 1994).

Urtetik urtera erantzukizun sozialaren kontzeptua zabaltzen joan zen herrialde ezberdinetara, garatu nahiz ez garatuetara.

1997an Lisboan ospatu zen Europar Batasuneko herrialdeen ministerioen arteko bileran, Liburu Berdea gauzatu zuten, ekonomia ezberdin batean bilakatuko zirela aipatuz, honen hazkuntza bilatuz baina ezagutza, lehiakortasuna eta munduko dinamika oinarritzat hartuz, modu jasangarri batean eta lanpostu gehiago sortuz (CCE, 2001, 3.or.). Liburu honekin lortu nahi zena, bai nazionalki, baita internazionalki ere, enpresek beraien Gizarte Erantzukizuna sustatzea zen, batez ere beraien esperientziei ahalik eta etekin handiena ateraz, praktika berritzaileak piztuz eta gardentasuna gehituz. Argitalpen honek, honen eztabaida sakona bultzatzeko helburua zuen, eta bertan aktiboki parte hartzen duten agente guztiak parte hartu zezaten (CCE, 2001).

Hamarkada honen amaieran iritsi zen Gizarte Erantzukizunaren interesa Espainiara, Marta de la Cuesta eta Carmen Valorrek buletin ekonomikoan aipatuta zuten moduan (de la Cuesta y Valor, 2003). Espainia momentu horretan krisia igaro zuen herrialdea izanik, bertako erakunde sozialek herrialdearen aurrezkoa modu arduratsu batean sustatzeko nahia pizten saiatu ziren, beste herrialdeetako adibideak hartuta. Gainera, enpresa espainiarrek hedapen internazionalarekin hasi ziren. Horrek, bai bertako merkatua, baita kanpo merkatua ere ondo ezagutzea derrigortzen zuen: herrialde bakoitzaren jarrerak, egoera soziopolitiko eta ekonomikoa, kultura, ... Guzti honek, barne eta kanpo azterketa bat egitera bultzatu zuen.

Horrez gain, XXI.mendearen hasieran, kezka orokor bat agertu zen. Izan ere, sektore pribatuaren inbertsioek gizartearekiko zuten jarrera ezkorrek Gizarte Erantzukizunaren beharra handitu zuten, bai Espainian baita internazionalki ere. Espainia mailan hainbat proposamen gauzatu ziren honen normalizazio eta ziurtapenerako (de la Cuesta y Valor, 2003). Horietako adibide batzuk dira IESEk gauzatutako *Código de gobierno de la empresa sostenible* eta *Comite Técnico de la Asociación Española de la Normalización y Certificación*ek (AENOR) idatzitako UNE araua.²

² UNE araua (*Una Norma Española*) normalizazio teknikariez osatutako batzorde batek sortutako arau teknologikoa da. Batzorde hori, arau horretan interesatuta dauden agente orok osatzen dute. UNE-a sortutakoan eta sei hilabetez frogan egon ondoren, behin betikoa araua idazten da. Arau hauek aldizka eguneratzen dira.



Enpresez gain zenbait politika taldeek ere kontzientzia hartzen hasi ziren eta 2002an Gizarte Erantzukizunari buruzko txostena lantzen hasi ziren, parte hartzaile guztien aukerak eta efikazia ebaluatu eta bermatzeko helburuarekin.

Urtez urte, interes hori handitzen joan da herrialdean. Zenbait enpresek dagoeneko horri zuzenduta dagoen saila dute barneratuta kudeaketa modu berriak barneratzeko, non enpresa jasangarri bat lortzeko politika eta prozedurak nagusi diren.

3. GIZARTE ERANTZUKIZUNA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Orain arte, Gizarte Erantzukizunari buruz hitz egiterako garaian, modu orokor batean egin dugu. Orain, enpresa pribatuak alde batera utzi eta sektore publikoan zentratuko gara. Erabat berdina izango al da edo zenbait desberdintasun edukiko ditu? Sektore publikoaren kasuan arau zehatzik egongo al da edo hau ere borondatezkoa izango da?

Azken honekin hasiz gero, Espainian behintzat, ez dago sektore publikoa Gizarte Erantzukizuna gauzatu eta zabaltzen dutela adierazten duen memoria formal bat igortzeko araurik. Hala ere, entitate guztiek, Kanpo Kontrol Organoari zenbait dokumentu justifikatzeko konpromiso legala dute (Navarro, Alcaraz, & Ortiz, 2010).

Horrez gain, gaurko egungo gizarteak honi buruzko kontzientzia handiagoa du eta geroz eta zorrotzagoa da gardentasuna bezalako gaiei buruz informazioa eskatzerakoan. Hori dela eta, sektore publikoko Gizarte Erantzukizunari buruzko informazioa oraindik oso landuta ez egon arren, herritarren presioa konpromiso hori hobetzeko eta gardentasuna adierazteko beharrak azaleratu ditu (Navarro, Alcaraz, & Ortiz, 2010).

Bestalde, sektore publikoa bere aldetik, Europa mailan, Gizarte Erantzukizunarekin lotuta dauden politika eta ekintza ezberdinak sustatzen ari da, honen garapenak bultzatzeko asmotan. Hala ere, oraindik ez dute honi buruzko inongo arau edo lege zehatzik sortu (Melle, 2007).

Haatik, sektore honek, oso paper garrantzia du borondatezko konpromiso honen zabalkuntza aurrera eramateko garaian. Izan ere, honek, bai enpresek baita gizarteari orokorrean ere, Gizarte Erantzukizunari buruzko informazioa erraztu, elkarlanean aritu eta hori sustatzeko jarrera eduki beharko dute, modu horretan, bere inguruko agenteei honi buruzko motibazioa eta gogoia piztuz. Jarrera horietako batzuk, hala nola, kontzientziakantainak egitea, informazio gehigarriak eskaintzea, kontsumo arduratsu bat sustatzea edota balore hauen heziketa bultzatzea izan daitezke (Melle, 2007).

Baina hori guztia ezin du sustapen soil batean geratu bakarrik. Konpromiso hori gauzatzeko motibazioa helarazteko, administrazioek horren erakuslea izan beharko dute. Hau da, beraiek ere, bere partaide zuzenen begietan, Gizarte Erantzukizun hori gauzatu eta errespetatu beharko dute.



Egia da, orokorrean, entitate publikoek geroz eta Gizarte Erantzukizunari buruzko oinarri gehiago barneratzen ari direla beraien funtzionamendu eta kudeaketa politiketan (Melle, 2007). Aurrez esan bezala, hori beharbada, gizartearen presio dela eta gertatzen ari da (Navarro, Alcaraz, & Ortiz, 2010). Modu honetan, administrazioak konpromisoaren adibidea izango dira, bai bere langile, bai herritar, baita gizartearentzat orokorrean ere (Melle, 2007).

Gainera, azken hamarkadan, entitate hauek, akordioak bateratzeko ahaleginak egiten ari dira. Akordio hauek, eztabaida soziala eta agente guztiei eragingo dieten akordioen arteko elkartzean datza. Hori dela eta, Espainian Sektore Publikoari buruzko hainbat lege gauzatu dira. Horren adibideetako batzuk dira 2011.urtean kontratazioei buruz egin zen legea³ edota 2007an gauzatu eta 2013an moldatu zen emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko lege organikoa⁴ (Melle, 2007).

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, sektore publikoak oraindik ez dituela Gizarte Erantzukizunaren atal guztiak berdin aztertu, hau da, ez dituela dimentsio hirukoitzaren aspektu guztiak modu berean landu. Izan ere, badaude zenbait aspektu garrantzia handiagoa hartu dutenak besteekin konparatuz gero. Navarro, Alcaraz eta Ortizen artikularekin jarraituz gero, sektore honetan gehien lantzen den dimentsioa soziala da. Ondoren, dimentsio ekonomikoa egongo litzateke, eta azkenik, ingurumen-dimentsioa dago, honi buruzko informazioa oso urria delarik (Navarro, Alcaraz, & Ortiz, 2010).

Beharbada, dimentsio sozial hori gehiago landu izana ez da kasualitate hutsa. Izan ere, azken urteetan, administrazioek beraien lankide, hornitzaile eta gizarte harremanak sustatzen ari dira batik bat. Guzti horiekin garapen jasangarri bat lortu nahi dute, guztien parte hartzea bultzatuz. Horregatik, entitate publikoen erroka handienetako bat bere interes-taldeak bere barnean modu egoki batean barruratzea izango da (Melle, 2007).

Hau guztiarekin, administrazioentzat garrantzitsua izan da bere interes-taldeak zeintzuk diren zehaztea, hauek guztiak bere barnean ondo integratzeko eta ondorioz, korporazio gobernu global bat gauzatzeko (Melle, 2007). Gobernu korporatibo honek, bere partaideen eskubide eta interesak onartu beharko ditu. Gainera, enpresa eta interes-taldeen arteko elkarlana sustatu beharko du, aspektu guztietan ongizatea bermatzeko helburuarekin (OCDE, 2004).

³ *Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.*

⁴ *Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.*



3.1 INTERES TALDEAK

Administrazio publikoaren interes-taldeei dagokionez, entitateak egindako ekintzek modu zuzen edo zeharkako batean eragiten dieten norbanako edo talde sozialak dira. Gainera, hauek, administrazioak zehazten dituen helburuetan eragina izaten dute (Melle, 2007).

Orain arte, definizio orokorretik desberdintasunik ez dagoela ikusi dezakegu. Hala ere, aldaketa sailkatzerako garaian egingo dugu. Sailkapen hau egiteko Monica Melleren artikulua jarraituko da (Melle, 2007).

Honek, bi multzotan bereizten ditu *stakeholders*ak: lehen mailako taldeak edo talde zuzenak eta talde osagarriak edo zeharkako taldeak (Melle, 2007).

Lehenengo mailakoak, arriskuak hartu eta politika publikoen efikazia eta efizientzia maila zehazten duten taldeak dira. Hemen barruan, bi azpitalde bereizten ditu. Bata, barne-taldeak dira, hala nola, goi karguak eta langile publikoak. Bestea, aldiz, kanpo-taldeak dira, alegia, herritarrak, hornitzaileak, finantza hartzekodunak eta beste administrazio publikoak.

Ikusi dezakegunez, hemen ez daude ez jaberik, ez akziodun, ezta bezerorik ere. Hauek, entitate publikoetan, bere baliokideak diren karguak dituzte. Hau da, jabeak eta akziodunak egon beharrean, herriak aukeratutako goi karguak daude (lehendakaria, alkatea, zinegotziak...) eta bezeroak egon beharrean, herritarrak daude, hauek administrazioaren zerbitzuak eskuratzen dituztelarik.

Beste sailkapen multzoa, zeharkako edo talde osagarriak dira. Hauek, entitate publikoek hartutako erabakien ondorio positibo edota negatiboak modu ez zuzen batean jasaten dituztenak dira. Honen barnean daude, eragile sozialak, gizartea orokorrean eta etorkizuneko belaunaldiak, besteak beste.

Interes-talde hauen garrantzia ez da berdina. Garrantzia hori, denbora, entitatea eta lortu nahi diren helburuen arabera aldatzen joan daitezke. Aldaketa horien modu egoki batean gauzatzeko erantzulea da administrazio publikoa. Gainera, talde guztiek ez dituzte erabaki eta prozedurak modu berdinean gauzatu edo jasango. Beraz, administrazioek, bakoitzaren zereginak eta konpetentziak mugatu eta zehaztu beharko dituzte. Modu horretan, talde bakoitzak beharrezko informazioa, botere eta jarduteko ahalmena izan beharko dute (Donaldson & Preston, 1995). Hori guztia posible izateko, administrazioek interes sare ezberdinak eraiki eta elkarlan estrategiak gauzatu beharko dituzte, taldeen arteko gainbegiratzea indartuz (Melle, 2007). Gainera, entitate publikoek, hartzen dituen erabakietan bere *stakeholders* guztien interesak kontuan eduki beharko ditu. Hau guztia posible izan dadin, entitateek harremanak bermatzeko jarduerak diseinatu beharko ditu, non partaide guztientzat egokiak izango diren.

Bestalde, aurrez aipatu dugun korporazio gobernu global hori sortzeko, administrazio publikoek bi urrats garrantzitsu jarraitu beharko dituzte. Lehena, bere interes-taldeak identifikatzea eta ondo definitzea izango da, eta behin hori eginda, gobernu hori ondo



bideratzeko dagoeneko existitzen diren mekanismoak, modu egoki batean, moldatu eta aurrera eraman beharko dituzte (Melle, 2007).

Gobernu mota honek, aldaketak sortzen ari da administrazio publikoetan. Izan ere, orain arteko metodologia jarraituz, interes-taldeen zeregina administrazioen erabakiak hartu ondoren hasten zen. Gizarte Erantzukizunarekin, aldiz, *stakeholders*ak paper garrantzitsuagoa bat hartzen dute, erabakiak hartzeko prozesuaren parte izanik (Melle, 2007).

Askotan, funtzionamendu eta politika berri hauek, gizarteak administrazioekiko duen konfiantza berreskuratzeko estrategia bat ere badela esan genezake. Izan ere, azken urteetako ustelkeri kasuak direla eta, konfiantza hori nabarmenki gutxitzen joan da eta hori berreskuratzekotan, entitate publikoek hainbat neurri hartzen ari direla ematen du. Horietako bat, erabaki prozesuetan beraien interes-taldeen parte hartzea handitzea izaten ari da. Hala ere, hori ez da neurri bakarra. Parte hartzea sustatzearekin batera, entitateen informazioaren gardentasuna ere handitu da, baita informazio horretara iristeko erraztasuna ere (Melle, 2007).

Horrelako erabakiek, interes-taldeekin duten harremana ona izan dadin laguntze dute. Gainera, *stakeholders*ak beraiei eragiten dieten erabakien parte badira, administrazio eta hauen arteko gatazkak nabariko gutxituko dira, eta hori entitateentzat onuragarria da (Melle, 2007).

3.2 OINARRIZKO PRINTZIOAK

Korporazio gobernu global horrekin jarraituz, Sektore publikoak zenbat printzipio bete behar ditu. Monika Melleren artikulua jarraituz gero, nahiz eta zenbait printzipio aurrez aipatuta eduki, gardentasunarena bezala, badaude beste zenbait aspektu berriak direla (Melle, 2007).

Hala ere, nahiz eta printzipio horiek garrantzitsuak izan, Monicak edozein administrazio publiko oinarritzko ezaugarri batzuk beti behar dituela dio, besteak beste, diziplina, independentzia eta inpartzialtasuna. Horrelako ezaugarriak gobernu on baten oinarritzko bereizgarriak direla dio (Melle, 2007).

Printzipioekin jarraituz, aipatu bezala, lehenengoa **gardentasuna** dago. Partaide guztiek periodikoki beharrezko informazioa eskuratzeko aukera izan behar dute, informazioa horrek sinesgarritasun nahikoa izan beharko duelarik.

Gainera, partaide edo interes-talde horien **identifikazio objektiboa** gauzatu beharko dute administrazioek, hauek behar bezala sailkatuz.

Horrez gain, administrazio horren antolaketa, **zuzendaritza eta kudeaketa parte-hartzailea** izan beharko du. *Stakeholders* ezberdinekin eztabaidak eta iritzien elkar banaketa hori errazten eta bermatzen du mekanismoak erabili beharko ditu entitateak.

Bestalde, entitate horrek **konpromiso etikoa, berdintasuna eta aniztasuna** errespetatu beharko ditu. Hau da, administrazio publikoak, etika kodeez hornitu beharko du, oinarritzkoenetatik, hala nola, giza eskubideen errespetua, bere interes-taldeen aniztasuna bere osotasunean estimatzera.

3.3 ADIERAZLEAK

Denok dakigun moduan, administrazio publikoek herritarrok ordaintzen ditugun zergen bidez lortzen dituzte ia bere baliabide guztiak (Guinart i Solà, 2003). Entitate hauek, beraien aldetik, salmentara zuzenduta ez dauden ondasun eta zerbitzuak ekoiztu behar dituzte, herritarrontzat onuragarria izanik (Flores & Navarro, 1997). Horregatik, hauek eskaintzen dituzten zerbitzuen efikazia eta baliabideen kudeaketa egokia baloratuak izan behar dute, balorazio hori komunitatearen asebetetze mailan eta entitatearen helburuen lorpenean oinarrituko delarik. Baina horretarako, beharrezkoa da efikazia eta efizientzia adierazle batzuetaz hornitzea. Gainera, adierazle hauen bitartez, entitate publikoak gauzatzen duen erantzukizuna eta bete behar duen legedia errespetatzen dituen ere ikus daiteke (Guinart i Solà, 2003).

Baina, zer dira adierazleak? Josep Maria Guinart i Solaren definizioa jarraituz, erakunde bateko funtsezko aldagaien jarraipena eta ebaluaketa gauzatzeko neurri unitateak dira, denboran zehar beraien arteko eta barne eta kanpo erreferente baliokideekin konparazioa egiten delarik (Guinart i Solà, 2003). Oinarritzko trena hauek, funtsezko bi betekizun ditu: deskribatzailea eta baloratzaila (Flores & Navarro, 1997).

Lehenengoak, adierazleak ekintza edo programa baten egoera errealaaren informazioa lortzea du helburu. Bigarrenak, lortutako informazio horren balioa zehaztu eta estimatzea du. Horretarako, adierazle honek objektiboa izatea beharrezkoa da (Guinart i Solà, 2003).

Objetibotasunaz gain, adierazle hauek hainbat baldintza bete behar dituzte. Baldintza hauek zehazterako garaian, teoria asko daude. *Governmental Accounting Standards Board*ek garrantzia, ulerkortasuna, konparatzeko ahalmena, aukera, trinkotasuna eta fidagarritasuna aipatzen ditu. Buschorren, aldiz, kanporako eta barnerako baliagarriak, fidagarriak, errazak, aproposak, baliogarriak eta ekonomiak izan behar dutela dio (Flores & Navarro, 1997).

Lan honetan, baldintza hauek zehazterako garaian, Josep María Guinart i Solaren artikulua jarraituko dugu (Guinart i Solà, 2003). Honek, bederatzi baldintza azpimarratzen ditu.

Lehenengoa, **kudeaketarako aipagarria edo garrantzitsua** izatea da. Hau da, adierazleak informatzeko, kontrolatzeko, ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko funtsezko informazioa eman beharko du.



Ondoren, **anbiguotasuna** ez sortzea izango da. Izan ere, eman diren datuak **fidagarriak** eta **zalantzarik gabekoa** izateko, interpretatzeko modu bakarra eduki beharko du, gaizki ulerturik ez sortzeko.

Gainera, neurtu nahi dena ondo adierazteko **egokia** izan behar du. Egokitasun hau, denboran zehar mantendu beharko da eta lortu den informazio hori, erabakiak hartzen diren momentuan eskuragarri egon beharko du. Horrez gain, informazio hori lortzeko garaien sortzen diren kostuak erakundearentzat onargarriak izateaz gain, kalkulatzeko eta interpretatzeko errazak izan behar dute. Modu horretan, informazio horrek beharrezko **irisgarritasuna** izango du.

Bestalde, adierazle hauek, ondo planteatuak eta kalitate onekoak badira, **sentikortasun** maila handia izango dute. Modu honetan, datuen aldaketak automatikoki identifikatzeko aukera emango du.

Horrez gain, errore-marjina ahalik eta txikiena izan dadin, neurri unitate hauek, **zehatzak** izan beharko dute.

Azkenik, aurrez aipatutako **objektibotasuna** dago. Hau ezinbestekoa da, izan ere, neurketa unitate hauek egokiak eta fidagarriak izateko, kanpo eragingatik baldintzatuak ez egotea beharrezkoa da.

Beraz, adierazleek, gure kasuan kudeaketa-adierazleak izango diren hauek, kalitatezko eta erabilgarria den informazioa emango digute, horrekin beharrezko ondorioak atera eta beste adierazle batzuekin konparatu ahal izateko. Hau guztia horrela izanda, aurrez aipatu ditugun baldintza hauek betetzen dituen adierazlea baliagarria izango dela suposatzen da.

Behin adierazleak zer diren eta eduki behar dituzten baldintzak argituta, zertarako edota zergatik diren erabilgarriak azaltzera pasako gara.

Lehenik eta behin, esan, adierazle hauek helburuak argitzeko balio dutela, alegia, administrazio publikoak bere estrategia planetan helburuak zehaztu eta deskribatzeko garaian, tresna kuantitatibo eta kualitatiboak behar dituzte, eta horretarako adierazleak baliagarriak dira. Horrekin batera, horiekin lortzen den informazioa objektiboa izan behar dutenez, entitate beraren informazioa lortzeko ere balio izaten du. Izan ere, baliabide publikoak behar bezala kontrolatuta egon behar dute eta beraien erabilera hobetu egin behar da efikazia, efizientzia eta ekonomia bezalako aspektuetan (Guinart i Solà, 2003).

Hortaz, baliabide publiko hauek kudeatzen dituen sektore publikoa ebaluatzea beharrezkotzat jotzen du autore honek. Izan ere, sektore publikoak herritarrekin jatorrizko kontratua duela dio. Azken finean, administrazioek eragin eta botere handia dute gizartean eta ondorioz, erantzukizun publiko handia dute (Guinart i Solà, 2003).



Beraz, garrantzitsua da jakitea hauen lana egoki den eta gure helburu eta beharrianak betetzen dituzten hala ez ikuskatzea eta ebaluatzea. Horretarako, hiru eremu ikuskatu beharko genituzke: Eremu operatiboa, finantza-eremua eta koherentzia-eremua (Guinart i Solà, 2003).

Eremu operatiboari dagokionez, kudeaketa publikoan beharrezkoak diren lau elementu baloratu eta ebaluatzen ditu: garrantzia, beharrezko datuak lortu ahal izateko baliagarriak izan behar dutelako; eraginkortasuna, helburuak zein gradutan lortu diren ebaluatu beharko dutelako; efikazia, ahalik eta kostu gutxiena eta emaitza hobeak dituen aldagaiak aukeratu beharko direlako; eta azkenik, segurtasuna, lortu nahi diren emaitzekin jarraitu ahal izateko, gizarte-baliabideak eta baliabide materialak bezalako baliabide murriztaileak eskuragarriak egongo direla ziurtatzeko.

Bigarren eremuak, alegia, finantza-eremuak, bi galdera erantzuteko balio izan beharko digu. Bata, ea gastuen emaitza eta aurrekontukoak ea bat datozen eta bestea, ea finantza-gaien kudeaketa finantza-kudeaketaren printzipio eta kontrolak errespetatzen dituen.

Azkenik, koherentzia-eremuak, ezarri diren helburuak legeekin, autoritateekin, politikekin, erregularizazioekin edota onartutako jokaera-estandarrekin bat datozen adieraziko digu.

Hiru eremu hauen ebaluaketak, administrazio publikoaren kudeaketa orokorrean ebaluatzen lagunduko digute. Izan ere, sektore publikoko ebaluaketa zeregin zaila eta eztabaidagarria izan daiteke. Enpresa pribatuetan ez bezala, publikoetan gizartearen ongizatea da helburua, lortzen dituen etekinak herritarrentzat izanik, pribatuak baloratzen dituzten adierazleak, hala nola, irabaziak, sarrerak eta akzioen kotizazio, ez dute balio sektore publikorako. Hori dela eta, administrazio publikoek, bestelako adierazlea izan behar dituzte. Adierazle horiek zehazteko, lehenengo zer neurtu nahi den zehartu beharko da. Guinart i Solaren artikulua jarraituz, honek zenbait faktore zehartu beharko ditu (Guinart i Solà, 2003).

Lehenengo faktorea ekonomia da. Atributu honek, entitateak bere finantza-, gizarte- eta material baliabideak kudeatzeko dituen baldintzei egiten die erreferentzia. Horretarako, eskuratzen diren baliabide horiek errentagarriak eta egokiak izan diren aztertzen da, hau da, ea momentu egokian, beharrezko kantitatea, kalitate ona eta prezio egokia duten aztertuko da.

Bigarrena efikazia da. Hau neurtzeko garaian, zehaztutako helburuak lortutako emaitzekin konparatzen dira, erabilitako baliabideak alde batera utziz. Ebaluaketa hau egiteko, beharrezkoa da lehenik eta behin plangintza bat gauzatzea, non helburuak zehaztuta egongo diren. Beraz, modu honetan, efikazia hau modu ezberdinetan baloratu dezakegu. Bata, esan bezala, esperotakoa eta lortutakoaren arteko konparaketa eta beste, lortutakoa eta emaitza optimo batean arteko konparaketa.

Efizientziari dagokionez, faktore honek ekoiztu diren ondasun eta zerbitzuak eta horiek gauzatzeko erabilitako ondasun eta zerbitzuen arteko erlazioa aztertzen du. Hau horrela izanda, baliabide zehatz batzuekin ahalik eta emaitza maximoa lortzen duen edota ondasun



edo zerbitzu baten kantitate eta kalitatea errespetatuz ahalik eta baliabide gutxien erabiltzen duen jokaera lortzen saiatu beharko da.

Bestalde, eraginkortasuna dago. Honek, entitateak hautatu duen jokaerak gizartean izan duen azken eragina neurtzen du. Hau baloratzeko garaian, ezin dira *outputak* baloratu soilik. Sortutako ondasun eta zerbitzuez gain, hauek gizartean sortu duten inpaktua ere kontuan izan beharko da.

Ondoren, zuzentasuna ere aztertzen da. Hemen, ekonomikoki arazoak dituzten herritarrek zerbitzu publikoak erabiltzeko duten aukera ebaluatzen da, herrialdearen batz bestekoarekin konparazioa eginez. Faktore honekin, herritar guztiek zerbitzuak eskuratzeko garaien aukera berdinak edukitzea bilatzen da, guztien arteko berdintasuna bilatuz.

Horrez gain, bikaintasuna dago. Faktore honek, *outputen* kalitateari egoten dio erreferentzia, baina bezeroen ikuspuntutik. Hori dela eta, puntu hau ebaluatzeko garaian herritarrak izango dira protagonistak, administrazioaren bezero potentzialak baitira.

Inguruneari dagokionez, garrantzitsua da inguruan dauden agente guztien ezaugarriak eta hauek ekoizten dituzten ondasun eta zerbitzuen berri izatea. Honekin batera, eboluzio sozioekonomikoari buruzko informazioa momentu oro izatea ere beharrezkoa da. Gaur egun, behar hori handiago da bizi dugun globalizazioa eta mundu mailako ekonomiak jasaten dituen aldaketak kontuak izanik.

Azkenik, jasangarritasuna dago. Honek, epe luze batean zerbitzu bat mantentzeko duen gaitasuna baloratzen du. Hau ebaluatzeko garaian, garrantzitsua da zerbitzuak bere kalitatea mantentzen duela ziurtatzea. Horretaz gain, helburuen jasangarritasuna ere baloratzen da. hauek baloratzekoan, ez da nahikoa hauek betetzea, baizik eta hauen onurak luza eta mantentzen daitezkeen ere baloratu behar da.

4. AZTERKETA ENPIRIKOA

Behin termino guztiak definituta, entitate lokaletan oinarritutako azterketa enpirikoarekin hasiko gara. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko probintziak aukeratu ditugu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

Hasiera batean, biztanlerian oinarritu ginen, horretarako, probintzia bakoitzetik biztanle gehien dituzten hamar hiriak hautatuz. Baina lan horretan, probintzien arteko desberdintasun demografiko nabarmenak agertu ziren. Izan ere, Arabaren kasuan, beste bi probintziekin konparatuz gero, herriak txikiagoak dira eta beraiei buruzko informazioa ere urriagoa da. Beraz, hasierako ideia berrantolatu ondoren, azkenen, Arabako sei hiri, Bizkaiko hamar hiri eta Gipuzkoako hamar hiri aztertu ditugu, guztira 26 udalerrri batuz.

Azterketa hori aurrera eramateko, hiri bakoitzaren udaletxeetako web orrietako informaziora mugatu gara. Horrek, udaletxe bakoitzak eskaintzen dituzten zerbitzu eta



baliabideak aztertzeko aukera ematen zuen, informazioa lehenengo pertsonan eta zuzenean, inongo bitartekari gabe, lortuz.

Bestalde, zein informazioan oinarrituko ginen zehazterako garaian, Vitoria-Gasteizko udaleko web orrian azaltzen ziren zerbitzuetan oinarritu ginen. Bertan azaltzen ziren puntu garrantzitsuenak, guk geuk alde z aurretik ipinitakoekin bateratu genituen, guztira 20 bat puntu zehaztuz. Baina zergatik Vitoria-Gasteiz? Kontuan izanda 2012.urtean *Green Capital* izendatu zutela, burutu beharreko azterketaren hasiera-puntu egokia iruditu zitzaigun. Gainera, zerbitzu eta baliabide ugari eskaintzen dituela esan daiteke.

Beharrezko informazio guztia bildu ondoren, lortutako datuak taula ezberdinak egiteko erabili ziren, modu horretan, hurrengo orrialdeetan dauden hiru taulak osatu zirelarik.

Ohar moduan, taulak azaltzen eta aztertzen hasi aurretik esan, aurrez esan bezala, tauletan agertzen den informazioa web orrietan agertzen den informaziotik ateratakoa dela. Beraz, baliteke udaletxeek bertan zehaztuta azaltzen ez den zerbitzuren bat eskaintzea. Haatik, hori horrela izan arren, beraien web orrietan zehaztuta agertu ez bada, lan honetan ezezkotzat hartu da.

4.1 TAULA BAKOITZAREN AZALPENA

Analisiaren hasi aurretik, taula bakoitzaren nondik norakoak azalduko ditugu.

1. Taulari dagokionez, taula honetan, bildutako informazio guztiaren laburpena agertzen da. Hasiera batean, hau baino garatuago zegoen taula bat osatu zen. Baina hemen, laburpen moduan, datu bakoitza ea agertzen zen edo ez azaltzen da. Informazio guzti hori, lehen aipatu dugun moduan, entitate lokalen web orrian azalduko informaziotik aterata dago. Baraz, ezezkoak, web orrian zehaztuta azaltzen ez den informazioari egiten dio erreferentzia. Bestetik, taularen goialdean agertzen diren zenbakian, aztertu ditugun puntuei egiten diete erreferentzia eta paragrafo honen ondoren agertzen den oharrean azalduta daude guztiak. Ohar horiei buruz esan, 4-13, 19-21 puntuetan, batik bat, alderdi sozial eta ekonomikoak biltzen direla eta 14-18 puntuetan, aldiz, ingurumen arloak. Hala ere, zenbait puntu alderdi bat baino gehiago bildu ditzakete, beraz, oso zaila da puntu horien banaketa zehatza egitea. Horregatik, aipatu berri den banaketa orientagarria dela esatea dago. Bestalde, udalerriak ordenatzeko garaian, probintziaka banatu ostean, bakoitzaren biztanle kopurua eduki da kontuan, handienetik txikienera ipiniz.



OHARRAK:

- Ez*: Web orrian ez da zehaztuta azaltzen
- 1: Biztanleria
- 2: Boterean dagoen alderdi politikoa
- 3: Zinegotzi espezifikoa
- 4: Haurtzaroko gaiak
- 5: Gazteen gaiak
- 6: Familien gaiak
- 7: Adinekoen gaiak
- 8: Berdintasuna
- 9: Bizikidetzeta eta aniztasuna
- 10: Garapenerako lankidetzeta
- 11: Aholkularitza
- 12: Laguntzak eta baliabideak
- 13: Euskara
- 14: Agenda 21
- 15: Ingurugiro gaietarako ikastegiak
- 16: Hondakinak (Gaiko bilketa)
- 17: Garraio publikoa
- 18: Ingurumen proiektuak
- 19: Planak
- 20: Gardentasuna
- 21: Iradokizun, kexak, Herritaren arreta zerbitzua...

1.Taula: 26 udalerrien azterketa, beraien web orrietan oinarrituta.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	
ARABA																						
Vitoria/ Gasteiz	242.082	EAJ-PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	
Laudio/Llodio	18.428	EH BILDU	Ez	Ez	Bai	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	
Amurrio	10.239	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Salvatierra/Agurain	4.952	EAJ PNV	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Bai
Oyón/ Oion	3.298	EAJ PNV	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez*	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	
Iruña Oka/Iruña de Oca	3.108	PSE-EE	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez*	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	
BIZKAIA																						
Bilbo	346.574	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	
Barakaldo	100.080	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	
Getxo	79.544	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	
Portugalete	47.117	PSE-EE	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Santurtzi	46.651	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Basauri	41.624	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Leioa	30.685	EAJ PNV	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez
Galdakao	29.351	EAJ PNV	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez*	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Durango	28.806	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Sestao	28.288	EAJ PNV	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	
GIPUZKOA																						
Donostia/San Sebastián	186.126	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Irun	61.195	PSE-EE	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Errenteria	39.230	EH BILDU	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Eibar	27.440	PSE-EE	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
Zarautz	22.890	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
Arrasate/ Mondragón	22.052	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Hernani	19.601	EH BILDU	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Tolosa	18.936	EAJ PNV	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lasarte/ Oria	18.082	PSE-EE	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Hondarribia	16.894	EAJ PNV	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai

Iturria: Nik egina. Azaltzen diren udaletxeetako web orrietan oinarrituta. 2015eko abendua.

2.Taulari begiratu gero, bertan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerriek aztertu diren zerbitzu bakoitza zein ehunekoetan estaltzen dituzten agertzen da. Horretarako, probintzi bakoitzean aztertu diren hirien datuak hartuta, udalerrri horietan zerbitzu bakoitza betetzen den hala ez begiratu eta betetzen diren kasuen batuketaren emaitza, udalerrri totalarekin zatitu ondoren ateratzen den portzentajea azaltzen da. Gainera, probintziak aztertzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoa bere osotasunean ere aztertuta azaltzen da. Azken ehuneko horiek zehazterakoan, probintzietako banaketa alde batera utzi eta zerbitzua betetzen diren udalerrrien kopurua, udalerrrien kopuru totalarekin (26 udalerrri) zatitu dira. Taula honetan, aurreko taulan bezala, goialdean agertzen diren zenbakiak, oharretan agertutako zerbitzuei egiten diete erreferentzia. Beraz, zerbitzu bakoitzaren estaldura zehazten da puntuz puntu. Bestalde, taula honen datuak, 1.Taulako datuetan oinarritua daude, beraz, aurrez esan bezala, web orrietan azaltzen den informazioa da. Hortaz, taula honetako ehunekoak aztertu nahi ziren zerbitzuen estaldura maila zehazten dute, betiere azterketa honetan zehaztu diren mugen barruan.

2.Taula: EAE-ko eta hiru probintziatako analisia puntuz puntu.

	1	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21
EAE	1.493.273	%4	%69	%96	%92	%85	%100	%88	%81	%77	%92	%96	%92	%50	%88	%100	%92	%85	%62	%96
ARABA	282.107	%0	%33	%83	%67	%67	%100	%67	%50	%50	%67	%83	%67	%33	%67	%100	%67	%67	%17	%100
BIZKAIA	778.720	%10	%70	%100	%100	%80	%100	%100	%80	%70	%100	%100	%100	%40	%90	%100	%100	%100	%70	%90
GIPUZKOA	432.446	%0	%90	%100	%100	%100	%100	%90	%90	%100	%100	%100	%100	%70	%100	%100	%100	%80	%80	%100

Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta. 2015eko abendua.



Bestalde, 3.Taula dago. Bertan, aztertu diren udalerrri guztien rankinga azaltzen da. Horretarako, hiri bakoitzaren zerbitzuen estaldura maila orokorra kalkulatu da. Hau da, udalerrri bakoitzak betetzen dituen zerbitzuen kopurua eta orokorrean aztertu diren zerbitzuen kopuru totalaren arteko zatiketa. Modu horretan, ateratako ehunekoen arabera rankinga osatu da. Ikus daitekeenez, udalerrri askok portzentaje berdina dute. Hauen kasuan, biztanle kopuruaren arabera kokatuta daude, biztanle gehien dituen udalerritik gutxien dituenera. Bestaldetik, taula hau gauzatu ahal izateko, 1.Taulako datuetan oinarritu gara. Beraz, datu guztiak, beste tauletan bezala, web orrietatik hartutako informazioan oinarrituta dago, udaletxe bakoitzak zehaztu eta erraztu duen informazioaren arabera. Azaldutako taula honetan ere, oharretako zenbakian erabiltzen dira.

3.Taula: Aztertutako udalerrien rankinga.

	1	2	%
1.Bilbo	346.574	EAJ PNV	%95
2.Vitoria/ Gasteiz	242.082	EAJ-PNV	%95
3.Donostia/San Sebastián	186.126	EAJ PNV	%95
4.Irun	61.195	PSE-EE	%95
5.Errenteria	39.230	EH BILDU	%95
6.Arrasate/ Mondragón	22.052	EAJ PNV	%95
7.Tolosa	18.936	EAJ PNV	%95
8.Lasarte/ Oria	18.082	PSE-EE	%95
9.Barakaldo	100.080	EAJ PNV	%89
10.Getxo	79.544	EAJ PNV	%89
11.Basauri	41.624	EAJ PNV	%89
12.Amurrio	10.239	EAJ PNV	%89
13.Portugalete	47.117	PSE-EE	%84
14.Santurtzi	46.651	EAJ PNV	%84
15.Galdakao	29.351	EAJ PNV	%84
16.Eibar	27.440	PSE-EE	%84
17.Zarautz	22.890	EAJ PNV	%84
18.Hernani	19.601	EH BILDU	%84
19.Durango	28.806	EAJ PNV	%79
20.Sestao	28.288	EAJ PNV	%79
21.Hondarribia	16.894	EAJ PNV	%74
22.Leioa	30.685	EAJ PNV	%68
23.Salvatierra/Agurain	4.952	EAJ PNV	%68
24.Laudio/Llodio	18.428	EH BILDU	%58
25.Iruña Oka/Iruña de Oca	3.108	PSE-EE	%37
26.Oyón/ Oion	3.298	EAJ PNV	%26

Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta. 2015eko abendua.



Ondoren, 4.Taula dago. Bertan, bai EAEn baita probintzi bakoitzean ere, aztertu diren zerbitzu guztien ehuneko totala azaltzen da laburtuta. Horretarako, betetzen diren zerbitzuen kopurua eta horien osatzen dute kopuru totalaren arteko zatiketa egin da. Beraz, taula honetan probintzia bakoitzeko eta erkidegoko estaldura mailaren ehunekoa ikusten da. Taula hau gauzatzeko 1.Taulako datuak erabili dira.

4.Taula. EAE eta hiru probintzietako zerbitzuen estaldura total.

	%
EAE	81%
ARABA	62%
BIZKAIA	84%
GIPUZKOA	89%

Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta. 2015eko abendua.

Amaitzeko 5.Taula azaltzen da. Bertan, gaur egun, 2015eko hauteskudetan garaile gertatu ziren alderdi politikoen kopurua kalkulatu da. Hemen ere, EAE eta hiru probintzietako datuak daude. Kalkulatzeko garaian, alderdi bakoitzak lortutako udalerrien kopurua eta herri guztien arteko zatiketa egin da. Horrela, alderdi bakoitzak zenbat herrietan agintzen duen ehuneko atera dugu. Horretarako, hemen ere, 1.Taulako datuak hartu dira kontuan.

5.Taula. EAE eta hiru probintzietan boterean dauden alderdi politikoen ehunekoak .

	EAJ PN	EH BILDU	PSE-EE
EAE	%69	%12	%19
ARABA	%67	%17	%17
BIZKAIA	%90	%0	%10
GIPUZKOA	%50	%20	%30


Iturria: Nik egina. 1.Taulako datuetan oinarrituta. 2016ko urtarrila.



Taula guztien azalpenarekin bukatzeko, agertzen diren koloreen zergatia azaltzea falta da. 1.Taulan probintzi bakoitzak kolore batekin desberdinduta dago. Hori, rankingari begira, horren lehenengo begiratua eta azterketa errazteko egin da.

Hau guztiaz gain, 2.Taularekin biztanleriari buruz lortutako datuez baliatuta, biztanleriaren banaketaren grafikoa osatu dugu, probintzi bakoitzean bizilagunen ehunekoa ikusi ahal izateko. Betiere, kopuruak aztertu diren udalerrien kopuruaren arabera da. Ikusi daitekeen moduan, Bizkaiak bizilagun kopuru guztiaren erdia baino gehiago du.

3.Grafikoa: *Biztanleriaren banaketa.*



Iturria: *Nik egin. 2.Taulako datuetan oinarrituta. 2016ko urtarrila.*

4.2 DATUEN IRAKURKETA

1.Taulako datuei begiratzuz gero, lehenengo begi bistan 'Bai'-en kopurua handiagoa dela ikusi dezakegu. Berau positiboa da, izan ere, 'Bai' horrek zerbitzu hori eskaintzen dela adierazten du. Hala ere, antzeman daiteke, biztanle kopurua behera egin ahala 'Ez' hitzaren kopurua gora egiten duela. Horrek, biztanleriak politika hauek ezartzerako garaien erlazioa duela ondorioztatzea eramaten gaitu. Hala ere, Araba probintziaren kasuan, salbuespen bat dago Laudioarekin. Baina kasu horretan izan ezik, orokorrean aipatutako joera ikusi daiteke.

Taula berdinarekin jarraituz eta alderdi politikoei erreferentzia eginez gero, antzeman daiteke azterketa honetan ez dutela eragin nabarmenik. Hala ere, azken udal hauteskundeak 2015an izan zirela eta hauek eragin zuten botere aldaketa kontuan izanda, beharbada goiz da udaletxeetan bizi daiteken aldaketa hori aztertu diren zerbitzu horietan islatuta ikusteko.



2.Taulara pasatuz gero, bertako datuekin atera daiteken ondorio nagusia, Araba probintziaren egoera guztietan ezkorrena dela Gizarte Erantzukizuna gaiari dagokionean. Horrek, EAEko ehuneko orokorretan jaitsiera bat eragin du. Haatik, beste probintziekiko desberdintasun hori, biztanle kopuruaren desberdintasunak eragin dezakeela ondorioztatu daiteke. Izan ere, 3.Grafikoan ikusi daitekeen moduan, erkidegoko biztanleen %19 bizi da soilik Araban, beste bi probintzien artean beste %81a banatzen dutelarik (Bizkaia %52 eta Gipuzkoa %29). Datu hauek, beti ere, azterketa honen udalerriak eta bere datuak kontuan hartuta. Beraz, eta aurreko taularekin aipatutako moduan, biztanle kopuruak eragina du udalerrietan bere baliabideak eta zerbitzuak eskaintzerako garaian.

Datu hauek guztiak kontuan izanda, 3.Taulara pasatzen bagara, antzeko emaitzak ikusi ditzakegu. Egindako rankingean, lehenengo postuetan Bizkaia eta Gipuzkoako udalerriak nabarmentzen dira, betiere Vitoria-Gasteizeko salbuespena kontuan izanik. Beraz, hemen ere, biztanleriak zerikusia duela ikusten da.

4.Taulan ere, antzeko konklusioa atera daiteke. Izan ere, taula honetan, 2.Taulan azaltzen diren portzentaje guztien ehuneko totala da, beraz, bertan ere Arabaren portzentajea besteak baino baxuagoa da, eta horrek EAEko ehunekoan du eragina.

Amaitzeko, 5.Taula dago. Hemen ondorio sakonak atera ahal izateko, beste azterketa bat egin beharko litzateke. Beraz, aipamen moduan esan, gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan botere gehien duen alderdia, EAJ-PNV dela, 10 udalerrietatik ia 7 gobernatzen dituelarik. Jarraitzen dion alderdia PSE-EE da eta hirugarren indarra EH Bildu, aurrekoaren oso getu dagoelarik.

4.3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDekoAREN EGOERAREN IKUSPUNTUA

Behin taula guztiak azalduta, azterketarekin hasiko gara. Hasteko, lehenik eta behin Euskal Autonomia Erkideko egoera ikusiko dugu. Horretarako, 2.Taulako datuak erabiliko ditugu batik bat, 4. eta 5.Taulako datuak ere erabiliko ditugun arren.

Lehenengo begiradan, ikusi daitekeen moduan, orokorrean EAEk aztertu diren zerbitzuak ehuneko handi batean estaltzen ditu (%81). Egia da, zenbat puntuetan oraindik lan handia dagoela egiteko, hala nola, ingurumenari buruzko ikastegietan (%50) edota udaletxeetan gizarte erantzukizuna ziurtatuko duen postu baten sorreran (%4). Baina esan bezala, orokorrean portzentajeak nahiko altuak dira.

Gizartearen talde ezberdinei buruzko zerbitzuei dagokionez, orokorrean ere nahiko altuak direla ikusi dezakegu. Hala ere, guztiak ez direla berdin lantzen nabari da. Portzentaje altuena duenetik hasten bagara, gazteen taldea aipatu behar dugu (%96). Hauei zuzendutako hainbat programa eta aholkularitza eskaintzen dituzte EAEko udalerriek. Gazte planak, elkartzeko tokien egokitzapenak, lehiaketak edota gazte enplegua sustatzeko programak geroz eta nabarmenagoak dira hiru probintzietan. Gainera, gehienetan, oso zabalduta dago drogen



menpekotasunen aurkako programa, hori familiei ere zuzenduta dagoelarik. Aipatu berri den bigarren talde hau ere asko lantzen da (%92). Honekin ere programa edo aholkularitza ezberdinak egiteaz gain, laguntza bereziak ere eskaintzen dituzte udaletxeek, bai familientzat orokorrean baita emakumezkoei bereziki zuzendutakoak ere. Hirugarren taldea, adinekoak dira (%85). Laguntza berezien eskaintza, zaintzeko toki aproposak eraikitzea edota toki publikoen egokitzea bezalako planak pixkanaka zabaltzen ari dira erkidekoan. Horretaz gain, ikastaro ezberdinak ere eskaintzen zaizkie, hala nola, memoria lantzeko edota gorputza lantzeko ikastaroak. Azkenik, haurtzaroko taldea dago (%69). Ehuneko nahiko altua izan arren, oraindik lantzeko dagoen talde bat da. Gehienetan hauen zainketa bideratuta dagoen laguntzak burutzen dituzte udaletxeek. Horretaz gain, ekintza puntualak ere prestatu arren, hauei buruzko programak ez dira hain ohikoak Euskal Autonomia Erkidegoko udaletxeetan. Hala ere, baliteke talde honetako programen eskasia familien taldeak osatzea, azken finean bi multzo hauek nahiko lotuta daude.

Berdintasunari begiratu gero, modu batera edo bestera, hiru probintzietako udaletxe guztiek lantzen dutela ikusi da. Berdintasun planak, Beldur barik programa eta gazteen arteko lehiaketak dira besteak beste erabiltzen diren estrategietako batzuk. Gaur egungo egoera ikusita, asko landu beharreko gaia dela argi dago. Beraz, ehuneko hau mantendu eta indartzen jarraitu beharko litzateke, adin eta errealitate guztietara iritsi eta honi buruzko kontzientzia sortzeko.

Gaurkotasunean dagoen beste gaietako bat, aniztasuna eta bizikidetzat da. Honi dagokion ehunekoa nahiko altua da (%88), baina oraindik ez dago EAeko udalerririk guztien planetan. Beharbada, aniztasuna bezalako gaiak errealitate guztietan berdinean ez bizitze horrek eragina izan dezake. Izan ere, udalerrien tamaina edo etorkinen kopurua bezalako faktoreak erabakigarriak izan daitezke horrelako planak edo programak zehazterako garaian. Ez baita berdina hiriburuek edo industria guneek izan ditzaketan mugimenduak herri txiki batekoekin alderatuta.

Gizabanakoen gaiekin bukatzeko, aztertu diren zerbitzu sozioekonomikoak falta dira. Lehenengoa garapenerako lankidetzat (%81) da. Bertan, mota ezberdinetako gaiak lantzen dira: gizartean heziketa, langabetuen heziketa, giza baliabideak lantzen dituzten gidak, enplegu eta garapen lokalerako laguntzak, bidezko merkataritza eta erosketa etikoa sustatzeko programak, herri edota eskualdeko estrategia ezberdina, herriko sektore ahulak indartzeko proiektuak... Askok eta desberdinak dira lantzen diren gaiak, gizarte hobeko bat lortzeko asmoz. Bestalde, laguntza eta baliabide ezberdinak (%92) eta aholkularitza (%77) aztertu dira. Hauek ere ugariak eta desberdinak dira. Laguntza eta baliabide ohikoenak diru laguntza ezberdinak dira. Hala ere, badaude beste zenbait laguntza ere, hala nola, formazio edota orientazio baliabideak. Aholkularitzari dagokionez, udalerririk gehienetan lan mundurako aholkularitzak daude. Dena den, bitartekaritza, orientazio edota gizarte zerbitzuen aholkularitza ere eskaintzen dute. Guzti hauen estaldura nahiko altua dela esan genezake. Hala ere, badaude zenbait hutsune udalerririk batzuetan. Horrelako zerbitzuek udalerririk



bakoitzaren baliabideekin lotura zuzena izan dezakete, beraz, hori baldintza garrantzitsua izan dezake zerbitzu gauek eskaini ahal izateko garaian.

Aurrekoarekin lotura duen beste puntu bat web orrietan azaltzen diren iradokizun eta kexen txokoa da. Honi dagokion portzentajea altu da (%96). Honekin, udaletxe bakoitzak herritarren iritzia kontuan duen jakiteko modu bat da. Nahiz eta web orriko zati txiki bat izan, herritarrentzako udaletxearekin harremanetan jartzeko tresna bat izan daiteke, bien arteko gertutasuna eta komunikazio posible bihurtuz.

Bestalde, interesgarria da erkidegoa beste autonomi gehienetatik desberdintzeko duen puntuetako bat aztertzea: hizkuntza. EAEk gaztelera ez den beste hizkuntza ofizial bat ere badu eta. Horregatik, udaletxeek hori bultzatu eta normalizatzeko ahaleginak egiten dituzten aztertzerakoan %96k ehunekoarekin egin dugu topo. Datu hori, errealitatea begiratuta oso altua da. Izan ere, komunikabideetan ikusi daitekeen moduan, erkidegoko zenbait zatietan euskararen erabilera urria edo eza izanik, entitate lokalen jarrera baikorra, positiboa izan dezake hizkuntzaren zabalkuntza eta hedapenerako. Udalek erabiltzen dituzten estrategia ohikoenak erabilpen planak, ikastaroak, hizkuntza sustatzeko egitasmoak eta normalizazio planak dira, besteak beste.

Ingurumen gaiei dagokionez, lehenik eta behin Tokiko Agenda 21 aplikatuta duten hala ez begiratu da. Tokiko Agenda 21, 'epe motz, ertain eta luzerako prozesua da, tokiko erakundeek martxan jarri eta garatu behar duten eta Egitura Plana edo Ekintzarako Tokiko Plana lantzearen eta aplikatzearen bidez udalerriko ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-politikak integratzen dituen programa da' (Eusko Jaurlaritza, 2016). Honen helburu nagusia, tokiko iraunkortasuna eta garapen iraunkorra lortzea da, beratako biztanleen bizi-kalitatea hobetuz (Eusko Jaurlaritza, 2016). Hori horrela izanda, biziraupena eta inguruarekiko errespetua (Ingurumen iraunkortasuna); berdintasunerako eta justizia sozialerako beharra (Iraunkortasun soziala); eta oreka ekonomikoa (Iraunkortasun ekonomikoa) integratzen dituen programak gauzatu behar ditu, horretarako eragile eta interesa duten talde eta herritar guztiek parte hartzen dutelarik. (Eusko Jaurlaritza, 2016). Aztertutako puntu hau definitu ondoren eta gure azterketara bueltatuz gero, analizatutako hiru probintzietako portzentaje orokorra nahiko altua da (%92). Teorian behintzat, ia udalerrri guztiek dute programa hau martxan. Hala ere, puntu honetan oraindik lana dago, bai ehuneko ehuna lortzeko baita dagoeneko martxa dagoen tokietan ere bere erabilera eta jabetze maila erabatekoa izateko.

Baina nola sustatu horrelako jarrerak? Helburu hori lortzeko tresnetako bat, udaletxeek horiei buruzko ikastegiak eskaintzea izan daiteke, horietako gai bat ingurumena izango litzatekeelarik. Horretan, hiru probintzietako udaletxeek lan handia dute egiteko, izan ere, azterketa honetan gai hau oso landuta ez dagoela ikusi da, aztertu diren udaletxe guztietatik erdiek soilik eskaintzen dutelarik (%50). Horien artean, ohikoenak kontzientziazio kanpainak, gai ezberdinei buruzko informazioa eta kontsultak edo hitzaldi ezberdinak dira. Zenbait udalek natur eskolak ere badituzte. Baina oraindik mugimendu hauek ez daude zabalduta



Euskal Autonomia Erkidegoan, ikertutako zerbitzu guztietatik portzentaje baxuenetariko bat duelarik.

Gaur egungo gizartean pil-pilean dagoen beste puntuetako bat hondakinen gaia da. Azken urteetan tira-bira ugari egon dira bai gizartean baita alderdi politiko ezberdinen artean ere. Argi dagoena birziklatzea beharrezkoa dela da, gure aztarna ekologikoa⁵ ahalik eta txikiena izan dadin. Kontzientzia hori nahiko zabaldua dagoela ikusi da, ia udaletxe guztiek gaiko bilketa ezarrita dutelarik (%88). Hala ere, landu beharreko gai izaten jarraitzen du, erabateko kontzientzia eta jarrera sortzeko.

Aztarna ekologikoa eta poluziorekin erlazionatuta dagoen beste gaietako bat garraioak sortzen duen kutsadura da. Horretan erkidegoko udaletxeak kontzientziatuta daudela ikusi da, guztien garraio publikoen erabilpena sustatzen dutelarik. Egia da, azken urteetan honen eskaintza zabaldu egin dela, udalerrien arteko komunikazioa hobetuz. Hala ere, oraindik kontzientziarioa falta dela esan daiteke, autoen erabilera murriztu eta zerbitzu publikoa erabiltzeko jarrera handitzeko.

Ingurumen gaiekin bukatzeko, udalek honi buruz gauzatzen dituzten programa ezberdinei egin behar zaie erreferentzia. Nabaria da azken urteetan sortzen ari den kontzientzia berdearen hazkuntza, izan ere, ingurumena zaintzeko gauzatzen ari diren programak geroz eta ugariagoak dira udaletxeetan (%92). Datu positiboa da, herritarren jabetze maila ahalik eta handia izan dadin. Haatik, programa hauek eraginkorrak direla ere kontrolatzea garrantzitsua da.

Bestalde, udal bakoitzak dituen planak daude (%85). Ikusienez, hauetako gehienak hirigintza eta ingurumenarekin lotuta daude. Beharbada, azken urteetan gai hauek irabazi duten garrantzia eragina izan du entitate lokalek erabaki hauek hartzeko garaian. Beraz, azken bi puntuak lotuta doazela esan daiteke, nahiz eta puntu honetan, bestelako gaiei buruzkoak ere barneratuta egon.

Amaitzen joateko, Gizarte Erantzukizunean garrantzi handia duen gaia aipatuko dugu. Hori entitateen gardentasuna da. Horrekin, udalak bere jardueraren nondik norakoak azaltzen ditu, bere erabiltze guztiek, entitate edo gizabanako, ezagutu dezaten. Puntu hau, gaur egun nabarmen zabaltzen ari den gaia da, geroz eta udaletxe gehiagok gardentasun ataria sortzen ari direlarik. Hala ere, oraindik ez dago erabat hedatuta, egun hiru probintzietako udalen %62 soilik ezarrita dutelarik.

Euskal Autonomia Erkidegoko analisiarekin bukatzeko, entitate lokaleko alderdi politikoa eta hauen zinegotzien banaketa aztertuko ditugu. Lehenengoarekin hasiz gero, erkidegoan batez ere EAJ-PNV alderdi politikoak (%69) agintzen duela ikusten da. EH

⁵ Aztarna ekologikoa iraunkortasunaren adierazle biofisiko eta sintetikoa da; balio bakar batekin giza komunitate batek bere ingurunean sortzen dituen eraginaren multzoa adierazten du, behar dituen baliabideak zein komunitatean kontsumo eredu mantentzeko sortzen dituen hondakinak kontuan hartuz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016).



Bilduk (%12) eta PSEE-EEk (%19) ere zenbat udaletxeen boterea eduki arren, jeltzaleak nabarmenki gailentzen dira. Hori zenbait politika edota gauzatuko dituzten programetan eragina izan dezake. Hala ere, hau guztia puntuz puntu azaldu ahal izateko beste artezketa bat egin beharko litzateke. Gurearekin jarraituz gero eta atal honekin bukatzeko, zinegotzien atala azaltzea falta da. Hemen, argi ikusi da erkidegoko udaletan ez dagoela zinegotzi espezifikorik gizarte erantzukizuna soilik aztertzen duenik. Udaletxeren batean jasangarritasun eta partaidetzako batzordea dutela ikusi arren (%4), orokorrean, gizarte erantzukizuneko gaiak sail edota batzorde ezberdinetan agertzen dira, hala nola, ingurumen batzordea edota gizarte-eta ogasun-saila. Beraz, puntu honetan aurrera pauso bat egin nahi bada, argi dago aurretik lan handia dagoela egiteko.

Azaldutako puntu guztiak osotasunean ikusita, EAEk Gizarte Erantzukizunarekiko duen egoera nahiko ona duela esan genezake, aztertu ditugun zerbitzu guztien estaldura orokorra nahiko handia izanik. Hala ere, badaude zenbait puntu lantzeko daudenak oraindik. Bestalde, biztanleriaren kopurua puntu erabakigarritzat hartu dezakegu, zenbait eta populazio handiagoa geroz eta zerbitzu gehiago eskaintzen direlarik.

4.4 HIRU PROBINTZIEN IKUSPUNTUA

Euskal Autonomia Erkidegoa bere osotasunean aztertu ondoren, berau osatzen dituzten hiru probintzien analisiarekin jarraituko dugu. Horretarako, 1. eta 2.Taulak erabiliko ditugu batez ere, nahiz eta zenbat datuetarako 4. eta 5.Taulak ere kontuan izango diren.

4.4.1 ARABA

Lehenik eta behin, erkidegoko hiriburuaren probintziarekin hasiko gara, Araba. Berau, aztertu diren hiru probintzietatik biztanle gutxien dituen da, EAEko bizilagunen %19a hain zuzen ere. Horrek, eragina izan du zenbait datu lortzeko garaian. Izan ere, hasiera batean probintziako 10 udalerrri aztertzen hasi arren, batzuen informazio ia eza zela ikusita, sei udalerritara mugatu behar izan zen azterketa. Horrek ere eragina izan du ondoren kalkulatu diren ehunekoetan, beraien aldakortasuna handiagoa jasan baitute. Beraz, informazio eskasia ikusirik, zenbait eta herri txikiagoa izan geroz eta baliabide urriagoak daudela ondorioztatu daiteke.

Azterketarekin hasteko, gizartearekin zuzenean erlazionaturik dauden gaiekin hasiko gara. Horretarako, gizatalde ezberdinei eskaintzen zaizkien zerbitzuekin hasiko gara. Araban, pisu gehien duen taldea gazteena da (%83). Gazte planak, bitartekaritza zerbitzuak edo aholkularitzak dira besteak beste eskaintzen diren zerbitzuetako batzuk. Hala ere, herria txikitzen doan heinean, zerbitzuak ere murrizten doaz. Badago ere kasuren bat, Iruña de Okarena bezalakoa, beraiek zerbitzu zuzenik eskaintzen ez duten arren, Eusko Jaurlaritzaren web orriko sarbidea errazten dutela, zerbitzu falta hori modu batera edo bestela estaltzeko. Horrelako errekurtoak, baliabide falta horri aurre egiteko era bat izan daiteke.



Gaiarekin jarraitzeko, bigarrenik familiak eta adinekoen taldeak daude (%67). Talde hauentzako nahiz eta programa ezberdinak egon, aholkularitza bezalako zerbitzuak dira nagusi. Zenbait udaletxeetan, Agurainekoan bezala, gai guzti hauek gizarte zerbitzuetako bulegoak ematen ditu, aholkularitza bertan eskaintzen dutelarik.

Honekin amaitzeko, ehuneko baxuenarekin haurren taldea dago (%33). Portzentaje hau ikusita, argi dago, Araban talde honi ez zaiola beharrezko garrantzia ematen. Oso udaletxe gutxi eskaintzen dituzte talde honi zuzenduta doazen zerbitzuak. Azterketa honetan, Vitoria-Gasteiz eta Amurrio dira hori estaltzen duten bakarrak, haurtzarora zuzendutako programa ezberdin edota bitartekaritza zerbitzuak eskaintzen dituztelarik.

Berdintasunari dagokionez, hemen probintziako udal guztiek, modu batera edo bestera, zerbitzu hau estaltzen dutela ikusi da, ehuneko ehuna lortuz (%100). BELDUR BARIK programa edota emakumeen elkarteak dira zerbitzu ohikoenak.

Bestalde, aniztasun eta bizikidetzatza programei erreferentzia eginez gero, hauek EAEkin konparatuz gero, urriagoak direla ikusten da (%67). Hemen ere, udalerriaren tamainak eragina izan dezakeela ikusi daiteke, hiri handietan txikietan baino zerbitzu gehiago eskaintzen direlarik. Berau, bertan dauden etorkin kopurua ere besteetan baino handiago izan daitekeela ondorioztatu daiteke eta horrek zerbitzu hauek egoteko beharra bultzatu. Haatik, Laudiok, biztanle gehien dituen Arabako bigarren hiria izanik, ez ditu horrelako zerbitzurik eskaintzen. Datu honek, tamainaren ondorioa ez bete arren, salbuespen soil bat izan daitekeela pentsa daiteke.

Gai sozialekin amaitzeko, eskaintzen diren laguntza eta baliabideei egingo diegu erreferentzia. Horretarako, lehenik eta behin, udalek herritarren iritzia eta kezak jasotzeko zerbitzua begiratu dugu. Hori ikustean, honen eskaintza %100 dela ikusi daiteke. Datu honek, herritarri garrantzia ematen zaiola ikustarazten du, web orri guztietan zerbitzu hori eskaintzen delarik. Berau datu positibo bat izanik, ondoren laguntzak aztertzerakoan, ikuspuntu baikor hori apaldu egiten da. Izan ere, probintziako udaletxeen laguntza sozioekonomikoak ez dira hain zabalak (%67). Bitartekaritza eta diru laguntzak dira eskaintzen diren laguntzetako batzuk. Datu hori okertu egiten da garapenerako lankidetzatza (%50) eta aholkularitza (%50) ikusiz gero. Lehenengoaren kasuan, kontzientziario kanpainak, prestaketa programak edota formazio ikastaro ezberdinak dira eskaintzen diren zerbitzuetako batzuk. Amurrioren kasuan, adibidez, AMURRIO BIDEAN erakundea dago, toki garapena bultzatzen duen hainbat ikastaro, informazio banaketa eta ekintzen bitartez. Aholkularitzari dagokionez, entitateek gai ezberdinak jorratzeko aukera ematen duten arren, Arabako udaletxeen erdiak eskaintzen dute soilik.

Euskarari dagokionez, errealitatean Araba, hiru probintzietatik erdalduna⁶ dela esan daiteke, eta hori datuetan ere ikusten den arren, hizkuntza landu eta normalizatzearen aldeko

⁶ Euskara ama hizkuntza: Araban %4; Bizkaian %13; eta Gipuzkoan %35 (Eustat, 2016)



ehunekoak nahiko altua da (%83). Euskara bultzatzeko plan estrategikoak, ikastaroak, bekak edota lanabes ezberdin eskaintzak dira Arabako udalek dituzten zerbitzuak.

Ingurumen arloetara pasatuz gero, lehenengo Tokiko Agenda 21 martxan duten begiratu dugu. Arabako udalerrien %67ak duela soilik ikusten da. Hori nahiko datu urria da. Datu honekin, tamainaren eragina ikusi daiteke. Izan ere, zenbat eta txikiagoa izan herria edota biztanle gutxiago eduki, geroz eta udalerrri gutxiagotan dago programa hau martxan. Beharbada baliabide falta izan daiteke horren arrazoi nagusietako bat.

Gaiarekin jarraituz eta ingurumen gaiei buruzko ikastegiei begiraturuz gero, oraindik murriztagoa dela ikusten da, probintziako zenbait udalerriek soilik eskaintzen dituztelarik (%33). Hemen ere baliabideen falta nabaritu daitekeen arren, landu beharreko gaia da. Ingurumena zaindu eta babesteko kontzientzia sortu eta hori errespetatzeko joerak bultzatzea garrantzitsua baita ondorengo belaunaldiei begira, beraz, udalek ikastaro edota kontzientzia saioa gehitzeko ahalegina egitea garrantzitsua izango litzateke. Hala ere, badaude zenbait entitate naturari buruzko jardunaldiak edota ikastaroak, inguru berdeak eta ibilbide bereziak planifikatu eta eskaintzen dituztela.

Hondakinen gaia begiraturuz gero eta web orriko informazioa kontuan izanda, gaiko bilketa duten udalerrien kopurua ez da erabatekoa (%67). Datu hau, nahiko kezagarria da, gaur egun, erakundeetan behintzat, birziklatzeko ohitura nahiko zabaldua eta barneratuta dagoela kontuan izanda. Izan ere, erakundeen aldetik jarrera hori bultzatzen ez bada, oso zaila izango da herritarren jokoera aldatzea. Beraz, esku-hartzeko gai bat dela esan daiteke, bere garrantzia eta eragina handia baita.

Bestalde, lurraren poluzioarekin zerikusia duen beste gaiari begiraturuz gero, hots, garraio publikoaren gaia, oso lan ona egiten dela ikusi daiteke. Izan ere, udalerrri guztiek garraiobide bat edo gehiago eskaintzen dituzte autoak alde batera utzi eta kutsadura gutxiago sortzeko asmoz.

Ingurumen proiektuei dagokionez, probintzia honetan erabateko lehentasuna ez dutela ikusi daiteke. Nahiz eta udalerrri erdiek baino gehiagok gauzatu programa hauek (%67), oraindik ehuneko ehunera iristeko lan handia dago. Martxan dauden programetako batzuk ERAZTUN BERDEA, mugikortasun programak edota ingurunearen eta ibaien ibilguten plan integralak dira.

Honekin batera, epe luzeko planak daude(%67). Programekin batera, hauek oso ugariak ez direla ikusten da. Aurreko puntuan bezala, herrien tamaina eta bakoitzaren baliabideek puntu klabe bat izan dezakete plan hauek garatu eta burutzeko garaian. Puntu honetako planik aipagarrien artean, Vitoria-Gasteizeko *Green Capital* 2012 eta bertan egiten diren ekintza guztiak eta Laudio 2025 daude.

Arabarekin bukatzen joateko, gardentasunaren gaia aipatuko dugu. Puntu honetako estaldura ia eza da (%17). Landu beharreko puntu da erabat. Beharbada, gai hau ez dago



udaletxeen lehentasunetan, baino hirugarrenetikiko garrantzi handia duen arloa izanik, entitateek jorratu beharko luketen puntua dela esan daiteke.

Amaitzeko, alderdi politiko eta horien lan taldeei dagokionez, Araban alderdi jeltzalea da nagusi (%67). Beste honen oposizioa EH Bilduk (%17) eta PSE-EEK (%17) osatuko lukete, nahiz eta beraien eskumena nahiko urria den. Zinegotziei begiraturaz gero, Arabak ez du Gizarte Erantzukizunean oinarritzen zen zinegotzirik eskaintzen. Hala ere, arlo hau osatzen duten gaiak sail ezberdinetan lantzen dira, hala nola, ingurumen eta gizarte zerbitzuen sailak.

Laburbilduz, Arabaren tamaina eta biztanle kopurua zerbitzuen estalduran eragina duela esan daiteke. Nahiz eta bere hiriburua gai honekiko garrantzi eta pisu handia eduki, gainerako udalerriek batz besteko hori nabarmenki murrizten dute. Probintzi hau aztertu ondoren, biztanleri kopurua eta udaletxe bakoitzaren baliabideak arlo hau jorrazteko garaian eragina izan dezakeela pentsaraztea eraman digu.

4.4.2 BIZKAIA

Populazio aldetik arazorik ez duen probintzia aztertuko dugu jarraian. Izan ere, hiru probintzietatik biztanle gehien dituen probintzia da Bizkaia, %52a hain zuzen ere.

Probintzia honen portzentajeei begiratu azkar bat emanez gero, orokorrean nahiko ehuneko altuak direla ikusi daiteke. Haatik, Gipuzkoakoekin nahiko paretsu egon arren, pixka bat baxuagoak dira, totalean aztertutako zerbitzuen %84a estaltzen direlarik. Aurreko probintziaren estaldura maila baino nabarmenki altuagoa da. Horren arrazoiak, tamaina edota Bizkaia ekonomikoki estatu mailan garrantzia duela izan dezakete.

Beste behin ere gizarte gaiekin hasiz gero, Bizkaiko udalerrietan gazteei (%100) eta familiei (%100) erabateko garrantzia ematen zaiela ikusten da. Entitate lokal guztiek eskaintzen dituzte bi talde hauekin zerikusia duten zerbitzuak. Alde batetik, gazteen kasuan ohikoenak gazte planak, gazte enpleguaren sustapena edo gazteei zuzendutako aholkularitza dira. Beste aldetik, familien kasuan, bizikidetzeta eta aholkularitza zerbitzuek dira nagusi. Gainera, orientazioa ere ugaria da. Horren adibidea da Leioak eskaintzen duen ETXADI orientazio zerbitzua.

Ondoren, adinekoen taldea dago (%80). Talde honen ehunekoa ere nahiko altua da. Probintzian ohikoenak diren zerbitzuen artean, hauen zainketa errazteko zerbitzuak eta tokien egokitzapenak daude.

Aztertu diren taldeen artean, zerbitzu gutxien dituenak haurren taldea da (%70). Hala ere, estaldura gutxien duena izan arren, ehunekoa altua dela esan daiteke. Horrekin, probintzia honek talde guztien beharrianak betetzen saiatzen dela ondorioztatu daiteke. Azken talde honi buruzko zerbitzuak ludoteka ezberdinak eta zainketaekin zerikusi dutenak dira besteak beste. Gainera, Barakaldon adibidez haurren eskubideak ere zehazturik dituzte.



Berdintasunari egiten badiogu erreferentzia, probintzi honetan ere erabateko estaldura dagoela ikusi daiteke. Aztertu diren udaletxe guztiek eskaintzen dituzte honi buruzko zerbitzuak. Hemen ere ohikoenak berdintasun planak, BELDUR BARIK programa edota berdintasun politikan dira beste batzuen artean. Protokoloak, aholkularitzak eta diru laguntza bereziak ere eskaintzen dira Bizkaian.

Bestalde, bizikidetzeta eta aniztasunari dagokionez, hemen ere portzentajeak gora egiten du (%100), hau ere erabatekoa izanik. Beharbada, Bizkaia probintzia industrializatua izateak eragina du, izan ere, hiru lurralde historikoetatik etorkin kopuru handiena⁷ duen probintzia da. Horrek, politika eta zerbitzu ezberdinak eskaintzeko garaian eragin zuzena izan dezake. Eskaintzen diren baliabideen artean, bizikidetzeta eta sentsibilizazio planak, Immigrazio tokiko planak, bizikidetzeta programak, txostenak eta egiaztagirak, etorkinen araudia edota aniztasun eskolak daude. Guzti honen gain, etorkinei arreta juridiko eta soziala ematen dieten zerbitzuak ere eskaintzen dira, horren adibide, Portugaleteko HELDU zerbitzua.

Udalek eskaintzen dituzten laguntza edo baliabideekin jarraituz gero, estaldura maila altua da (%100). Hauen artean nagusienak lan mundura zuzendutako laguntza ezberdinak daude. Behargintza programa ere arlo horretan laguntzeko programa da, probintziako udalerrri desberdinek parte hartzen dutelarik. Arazo sozialei aurre egiteko ere zenbait laguntza eskaintzen dituzte, ABEGI aterpetxea da horren adibidea. Garapenerako lankidetzari dagokionez (%80), mota ezberdineko ekintzak eramaten dituzte aurrera probintzi honetako udaletxeek. Gizarte heziketarako prebentzio planak, langabetuentzako laguntza ezberdinak, giza garapen jasangarriaren sustapena, ekintza humanitarioak edota nazioarteko kooperazio proiektua aurkitu daitezke. Gainera, hori guztia gutxi balitz, Galdakaon adibidez, enplegu eta garapen lokalerako bulegoa dago eta Leioan HERRIGUNE ikasketa komunitate hezitzailea aurki dezakegu. Aholkularitzarekin jarraituz gero, laguntzen multzoetatik ehuneko baxuena duen atala da (%70). Nahiz eta portzentajea altua izan besteak baino txikiagoa da. Aholkularitza moten artean, ohikoenak lan mundurako eta gazte eta familientzakoak dira. Horrez gain, Portugaleten Kontsumitzaileen Informazio Udal Bulegoa ere zabalik dute.

Atalarekin amaitzeko eta herritarren iritzia eta kexak jasotzen dituzten iradokizunen txokoari erreparatuz gero, entitate guztiek zerbitzu hori ez dutela ikusi daiteke (%90). Hori harritzeko datua izan da, ohikoena tresna horren erabilera erabatekoa izatea baita.

Euskarari dagokionez, entitate lokal guztiek eskaintzen dituzte hizkuntza sustatzeko ekintzak. Horien artean, euskara biziberritzeko plana, sustatzeko ekintza planak eta euskal kulturaren inguruan jardunaldi ezberdinen eskaintzak daude. Horretaz gain, adibidez, Barakaldoko udalak merkataritzan ere euskara sustatzeko ekintzak proposatzen ditu.

Ingurumen gaietara pasatuz gero, lehenik eta behin Tokiko Agenda 21en ezarpenari begiratuko diogu. Hori erabateko dela ikusi daiteke (%100). Datu positiboa da hori, baino

⁷ 2015ean Bizkaiak 65.041 etorkin; Gipuzkoak 46.408; eta Arabak 25.948 (Euskal Herriko Unibertsitatea & Eusko Jaurlaritza, 2016)



lanean jarraitzea garrantzitsua da, herritar guztiengan kontzientzia eta jarrera arduratsu bat sortzeko.

Datu positiboa ez duen zerbitzua, ingurumenari buruzko ikastegien eskaintza da (%40). Oso ehuneko baxua da, probintzia honek duen kaxkarrenetarikoa. Nahiz eta zenbait udalerrik kontzientziario kanpainak eskaini, oraindik horien kopurua txikia da. Beraz, puntu honetan lana egiteko dagoela argi dago.

Hondakinekin jarraituz gero, Araba baino ehuneko altuago duen arren, gaiko bilketaren ezarpena oraindik ez da ehuneko ehunera iristen (%90). Hortaz, ezarpen total hori lortzeko lana dago oraindik, birziklatzeko garrantzia erabatekoa baita.

Haatik, garraio publikoaren inguruko lanketa eta estaldura erabatekoa da (%100). Hori datu positiboa da, izan ere, zenbait eta garraiobide eskaintza zabalagoa izan, geroz eta auto gutxiago erabiltzera eramango du eta ondorioz kutsadura gutxituko da.

Bestalde, Bizkaiko udalerri guztiek ingurumen proiektuak (%100) eta epe luzeko planak (%100) bideratzen dituzte. Hauek ugariak eta anitzak dira. Lehenengoaren adibidetako batzuk, sentsibilizazio kanpainak, airearen kalitatea eta zaratari buruzko txostenak edota naturari buruzko jardunaldiak, Aste Bestea bezalakoak, dira. Bigarreanean gauzatzen diren proiektuak, jasangarritasun lokalaren indizeen zehaztapena, jasangarritasun ekintza planak, komertzio berdearen sustapena eta mugikortasun iraunkorraren planak dira besteak beste. Beharbada, hainbeste proiektu egotearen arrazoietakoa bat udalerrien tamaina izan daiteke. Alegia, tamaina horrek, baliabide gehiago edukitzea eraman dezake, eta horiekin plan gehiago prestatu eta burutzeko aukera eman dezake.

Gardentasunari begira, hau oraindik erabateko ez dela ikusi daiteke (%70). Ehuneko altua izan arren, puntu garrantzitsua da udaletxeko datuen fidagarritasunarentzat, eta ondorioz, lantzeko puntu inportante bat da.

Bizkaiarekin amaitzeko, alderdi politikoei begiratuko diegu. Puntu honetan, argi dago, probintzia honetan botere gehien duen alderdia EAJ-PNV dela (%90). Beste alderdiak, PSE-EEK (%10) ez du inportantzia handirik. Beraz, ehuneko oso altu batean, probintzian hartzen diren erabakiak jeltzaleen eskuetan daude. Zinegotzietatik dagokionez, Bizkaian, Galdakaon hain zuzen ere, Jasangarritasun eta partaidetzako batzordea dute. Beraien ekintzan zeintzuk diren zehatz-mehatz jakitea oso zaila izan arren, izenarengatik Gizarte Erantzukizuneko gaietan zuzenean murgildu dezaketela suposatzen dezakegu. Beste udal guztietan, Arabaren kasuan bezala, gaiak sail ezberdinen artean burutzen dituzte.

Probintzia honetan ikusi dugu, udalerrien eta bertan bizi diren pertsonen kopurua gora doan heinean, eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuen kopurua ere igo egiten dela. Berau, orain arte sortu den teoria indartzen du. Nahiz eta oraindik Bizkaiak lantzeko puntuak eduki, aztertu diren zerbitzuen estaldura nahiko handia duela ikusi dugu (%84), bere biztanleen beharrak eta nahiak ehuneko handi batean estaliz.



4.4.3 GIZPUZKOA

Azkenik, aztertze falta den probintzia Gipuzkoa da. Nahiz eta hedaturaz hiru probintziarik txikiena izan, aztertutako zerbitzuen estaldura handiena duena da (%89). Biztanleriaren aldetik, EAeko bizilagunen %29a bizi da bertan.

Giza talde ezberdinen zerbitzuekin hasiz gero, bertan ikusi daiteke guztien estaldura ia osoa dela. Hala ere, portzentaje guztia ez dira berdinak talde guztietan. Hasteko, gazteak, familiak eta adinekoen taldeak daude, hiruak %100a dutelarik. Gazteen kasuan, gehien eskaintzen diren zerbitzuen artean aholkularitza eta orientazio zerbitzuak, biltzeko tokien egokitzapena eta ikastaro ezberdinen eskaintzak daude. Familiei dagokionez, bitartekaritza eta aholkularitza dira ohikoenak, nahiz eta emakumeen erakundeak eta tailerrak ere eskaintzen diren. Azkenik, adinekoen artean gehien eskaintzen diren zerbitzuak hauen zainketara bideratutakoak edota ikastaro ezberdinen eskaintzak dira. Gipuzkoako udalek hiru talde hauen beharrak asetzeko ardura dutela ondorioztatu dezakegu, guztiek zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituztelarik.

Bestalde, talde hauen analisiarekin amaitzeko haurren taldea dago. Honek, nahiz eta ehuneko ehuna ez lortu, portzentaje altu bat du (%90). Talde honi eskaintzen zaizkion zerbitzurik ohikoenak zainketa zerbitzuak edota ekintza desberdinak dira. Zenbait kasuetan familiei ere zuzentzen zaizkie horietako zenbait ekintza. Beraz, beste behin ere bi talde hauen erlazioa ikusi dezakegu.

Berdintasun gaira pasatuz gero, probintzia honetan ere garrantzia duen arloa dela ondorioztatu daiteke. Ekintza mota ugari eskaintzen dituzte, horien artean berdintasun plana, Beldur barik programa, jabetze eskolak, aholkularitzak, topaketa ezberdinak eta berdintasun politikak daude. Garrantzitsua da udalerrri guztiek horrelako zerbitzuak luzatzea, kontzientzia eta jabetze maila sortu eta zabaltzeko.

Eztabaida ugari sortzen dituen beste gaietako bat bizikidetzak eta aniztasunarena da. Hori saihesteko, Gipuzkoak politika eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu (%90). Harrera protokoloak, elkarbizitzak, aholkularitzak, informazio guneak, immigrazio eta aniztasuna kudeatzeko toki planak, bizikidetzak eta giza eskubideen udal planak dira horietako batzuk. Horretaz gain, egitasmo ugari eskaintzen ditu probintzia honek. Adibideetako batzuk dira, Hernaniko BERDINOLA egitasmoa, Iruneko ADISKIDETUAK elkarteak edota Tolosako BIZILAGUN-ONDOKO FAMILIALIA eta HARRERA ON programak. Probintzia honetan ere garrantzia duen gai bat dela ikusten da. Etorrinen kopurua Bizkaian bezain altua ez izan arren, hemen ere behar honen estaldura nahiko handia da.

Gizartearen beharrekin amaitzeko, azkeneko hiru puntuak aztertzea falta da. Lehenengoa garapenerako lankidetzak da (%90). Honek, portzentaje altua izan arren, oraindik erabatekoa izatera heltzen ez dela ikusi daiteke. Zerbitzua aurrera eramateko erabiltzen diren tresnen artean, OPORRAK BAKEAN programa, bidezko merkataritza eta erosketa etikoa, heziketa programak edota garapen sozioekonomikorako ekintza plana bezalakoak daude. Gainera,



zenbait udalerrietan zerbitzu bereziak dituzte, hala nola, Tolosako TOLOSALDEA GARATZEN edo Eibarreko ERREBAL eraiki zure hiria.

Aholkularitzari dagokionez, entitate lokal guztiek eskaintzen duten zerbitzua dela ikusi da (%100). Orokorrean, gai ezberdinak lantzen dituzte, bai pertsonalak baita profesionalak ere. Aipatzekoa da, zenbait udalerrietan horretarako zuzenduta dagoen bulego eta elkarte daude, horren adibidetakoa bat da Eibarreko PEGORA bulegoa.

Azkenik, udalek eskaintzen dituzten laguntza eta baliabide desberdinak daude, hauen eskaintza ere erabatekoa delarik (%100). Diru laguntzak, formazio desberdinak eta enplegua sustatzeko baliabideak dira probintzia honetan ohikoenak diren zerbitzuak.

Beraz, guzti honekin, Gipuzkoako udaletxeak herritarrei laguntzen edo orientatzen saiatzen direla ikusi daiteke. Baino beraien iritzia kontuan hartzen al dute? Horretarako, web orriko iradokizun eta kexen txokoa begiratu dugu eta udaletxe guztiek (%100) zerbitzu hori martxan dutela ikusi dezakegu. Horrek, komunikazio hori sortzeko baliabidea badagoela erakusten digu eta ondorioz, herritarren iritzia kontuan hartzen dutela pentsatzera eramaten gaitu.

Euskarari dagokionez, probintzia honetako udalek garrantzia ematen diote, guztiek ekintza eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituztelarik. Horien artean, ikastaroak, udal hizkuntzaren politiken zehaztapena edota normalizazio eta erabiltzen planak daude. Gainera, zenbait udaletxeek hiztegi desberdinak ere eskaintzen dituzte, hala nola, ostalaritzako hiztegia. Modu horretan, pertsona eta errealitate guztietara iristen saiatzen dira, eguneroko bizitzan erabilgarriak diren tresnak eskainiz.

Tokiko Agenda 21era pasatuz gero, ikusi daiteke Gipuzkoako udaletxe guztiek dutela hori gauzatuta (%100). Hala ere, bestetan bezala, honi buruzko kontzientzia sortu beharra dago. Herritarrek hori buruz jakiten behar dute eta horren partaide sentitu, jabetze maila handiagoa izan dadin.

Ingurumen ikastegiei dagokionez, probintzia hau da guztietatik portzentaje altuena duena (%70). Hori ehuneko nahiko altua izan arren, oraindik lana dago. Lantzen diren gai nagusiak hondakinen kudeaketa, energia eta ura bezalako gaiak eta erreka eta basoko bioaniztasunak dira. Zenbait udaletan ingurumen eskolak ere badituzte, horren adibide dira Tolosako ZULOAGA TXIKI INGURUMEN ESKOLA edota Donostiako ARTIKUTZA NATUR ESKOLA. Beraz, nahiz eta Gipuzkoako entitate lokalek atal hau lantzen duten, oraindik zeregin ugari egiteko dagoela ikusi daiteke.

Goran aipatu den hondakinen gaiari eusten badiogu, ikusi daiteke herri guztietan gaiko bilketa ezarrita dagoela (%100). Aztertu diren hiru probintzien artean Gipuzkoak du portzentaje altuena. Hori datu positiboa da. Hala ere, birziklapen datuei jarraipena egitea garrantzitsua da, bilketa metodoa egokia eta herritarren artean barneratuta dagoela ziurtatzeko. Bestela kontzientziazio kanpainak egitea beharrezkoa izango litzateke.



Garraio publikoari dagokionez, Gipuzkoak ere oso lan ona egiten du ahalik eta garraiobide gehien eskaintzen (%100). Udalerrri guztiak, modu batera edo bestera, elkar komunikatuta daude. Hori, erabiltzaileei autoa alde batera utzi eta garraio mota hau erabiltzera bultzatzea diezaieke, poluzioa eta gas toxikoen emisioa gutxituz.

Ingurumen proiektuei begiratuz gero, udaletxe guztiek martxan dituztela ikusi daiteke (%100). Ohikoenen artean, mugikortasun asteak, aste berdeak, zuhaitz eguna edota alkateen arteko ituna daude. Epe luzeko planei dagokionez ehuneko altua den arren(%80), estaldura pixka bat murrizten da. Udaletxeek gauzatzen dituzten planen artean, auzo osasungarriak, energi jasangarriaren ekintza planak, iraunkortasunerako ekintza planak, HAPOn berrikusketak eta Aalborg+10 konpromisoaren sinadurak daude.

Gipuzkoako udaletxeen gardentasunarekin jarraituz, hemen ere lantzeko gai bat dela ikusten da. Nahiz eta hiru probintzietatik ehuneko altuena duena izan (%80), oraindik ez dago erabateko ezarpena. Beraz, puntu hau ere lantzeko dagoela ondorioztatu daiteke.

Amaitzeko, alderdi politikoei erreferentzia labur bat egingo diegu. Gipuzkoan ere EAJ-PNVk gehiengoa duen arren, probintzia honetan boterea banatuagoa dago. Izan ere, jeltzaleek %50a dute, beste zatia PSE-EE (%30) eta EH Bilduren (%20) artean banatuta dagoelarik. Alderdi hauen zinegotzietatik dagokionez, Gipuzkoako udalek ez dute sail espezifikorik Gizarte Erantzukizuna lantzeko. Araban bezala, sail ezberdinen artean egiten dute lan hori.

Ikusi daitekeen moduan, Gipuzkoak aztertu diren zerbitzuak ehuneko handi batean estaltzen ditu eta hori datu oso positiboa da. Zerbait aipatzekotan, giza taldeei zuzendutako zerbitzuen estaldura maila ia osoa aipatuko genuke, hiru probintzietatik altuena delarik. Gardentasun arloan ere, gehien landu duen probintzia da hau. Beraz, estatuko probintzia txikiena izan arren, Gizarte Erantzukizunari buruzko lana eginga badagoela ondorioztatu daiteke, udaletxeek beraien baliabideen zati bat horretara bideratzen dituztelarik.

Behin probintzia guztiak azaldu ondoren, komunean duten zenbait puntu positibo aipatuko ditugu. Horietako bat aztertu diren udalerrri batzuen eredu Pariseko Klima Aldaketaren Goi bileran aurkezteko aukeratuak izan zirela da. Horiek, Gasteiz, Amurrio, Bilbo, Durango, Donostia, Errenteria eta Tolosa dira. Bestalde, aipatzeko beste puntu bat UDALSARE21 programan parte hartzen duten udalerrri guztiak dira, ia aztertu diren herri guztiak bertan daudelarik. Programa horretan, Agenda 21ren ezarpena eta erabilera sustatzen dute eskualde edo eremu ezberdinetan banaturik.

Guzti honekin, Euskal Autonomia Erkidegoak osatzen duten hiru probintziak bide onetik doazela ondorioztatu daiteke, oraindik lan handia egiteko dagoen arren. Horrez gain, udalerrrien tamaina eta biztanle kopurua zerbitzuak eskaintzerako garaian eraginak izan dezaketela ere pentsa dezakegu.



4.5 HIRU HIRIBURUREN KOMENTARIOA

Behin probintziak aztertu ondoren, hauek alde batera utzi eta hiriburuak aztertuko ditugu, hauen datu garrantzitsuenak aipatzen. Horretarako, 1. eta 3.Taulako datuetan oinarrituko gara, batez ere.

Hasteko, biztanleriari egingo diogu erreferentzia. Puntu honetan, Bilbo da hiru hiriburuetatik biztanle gehien dituen, hiriburuetan bizi diren bizilagunen %45a bertan bizi direlarik. Bigarraena Gasteiz da %31arekin eta azkenik, Donostia %19arekin.

Bestalde, alderdi politikoei dagokionez, hiruetan alderdi jeltzaleak du boterea. Beraz, hiriburuak EAJ-PNVren eskutan daude.

Datu horiek aipatu ondoren, Gizarte Erantzukizunarekin zerikusia duten zerbitzuetara pasako gara. Aztertutakoren arabera, hiru hiriburuak zerbitzuen %95a eskaintzen dituzte, beraien bizilagunen beharrei garrantzia eman eta hauek asetzen. Datu hori pozgarria da, izan ere, probintzietako gune garrantzitsuenetarikoak horri buruzko kontzientzia dutela islatzen du. Abiapuntu ona izan dezake, beste udalerriek ere jabetza horrekin hasi daitezten. Betetzen ez duten puntu bakarra zinegotzi espezifikoak edukitzearena da. Beharbada eta azterketa ikusi ondoren, zabaldu gabeko puntu bat dela ondorioztatu daiteke. Baliteke, Gizarte Erantzukizunaren terminoa zabaltzen doan heinean hori ere ohikoagoa bihurtzen hastea.

Beraz, hiriburuak aztertutako gaia kopuru handi batean betetzen dutela ikusi daiteke. Baina zeintzuk dira bere puntu indartsuenak? Non nabarmentzen dira? Jarraian aipatuko ditugu.

Horretarako, lehenengoa Bilbo izango da. Udaletxearen web orrian ikusi daitekeen moduan, garaikur ugari lortu ditu urteetan zehar sail ezberdinak saritzen. Baina azterketa honetan, gardentasunari buruzko sariak azpimarratuko ditugu. Izan ere, *Transparency Intenational Españak* estatuko udaletxeekin egindako rankingean, Bilbok azken urteetan, behin baino gehiagotan lortu du lehenengo postua, lau aldiz hain zuzen ere (2008.urtean 1.postua; 2009.ean 2.na; 2010.ean 1.postua; 2012.ean 1goa; eta 2014.ean 1.postua) (Transparency International España, 2016). Saria banatzen duen entitate honek, administrazio publikoaren gardentasun maila neurtzen du, horretarako datu ezberdinak ebaluatu eta udaletxe bakoitzak publiko egiten duen informazio aztertzen dituelarik. Ebaluaketa hori gauzatzeko, entitateak 80 adierazle ezberdin erabiltzen ditu (Transparency International España, 2016). Sari hau garrantzitsua da kontuan izanda, EAEn gardentasunari buruzko lana oraindik urria dela. Beraz, Bilbo erreferente eta abiapuntu ona izan dezake beste udalerrientzako, gai honi buruzko proiektuen kopurua gehituz.

Gasteiz hiriarri dagokionez, azpimarratuko dugun lorpena, 2012.urtean lortu zuen *Green Capital* errekonozimendua da. Europako Batzordeak ingurumena, ekonomia eta hirietako bizi-kalitatea hobetzeko esfortzu lokalak saritzen ditu eta urtero, entitateak ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko duen hiriarri esleitzen dio garaikur hori. Modu horretan, beste hiri batzuentzako erreferente izan daitezkeen hiriak goraiatzeko, praktika eta politika hauek



zabaltzeko asmoarekin (European Commission, 2016). Beraz, Gasteiz hiria pertsona bakoitzeko berdegune eta lorategiez estalitako azalerarik handiena duen europar hirietako bat izanik, sari hau lortu zuen 2012.urtean (Vitoria-Gasteizko Udala, 2015).

Azkenik, Donostia hiriaren lorpenetako bat aipatuko dugu. Asko dira Gipuzkoako hiriburuak irabazi dituen sariak, baina bat aukeratzekotan, Europa mailako saria aipatuko dugu. Hori, Europar Batzordeko CIVISA ekimenak urtero banatzen dituen Urteko hiriaren saria da (Civitas, 2016). Donostiak 2012.urtean irabazi zuen sari hura. Garaikurra hiri-garraio jasangarri, garbi eta energetikoki eraginkorrak diren sistema eta estrategien errekonozimendua da (Novus Innovación Digital, S.L., 2016). Sari honek, Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoari buruz egiten den lanaren isla izan daiteke. Izan ere, udalerrri handi eta txikietan ahalik eta garraio bide eskaintza zabalena eskaintzen dela ondorioztatu daiteke egindako azterketarekin.

Hiru hiriburuak mota ezberdinetako errekonozimenduak jaso dituztela ikusi daiteke, guztiak ingurumena, ekonomia edo bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Aurreko puntuan ere aipatu den moduan, Eusko Jaurlaritzak, beste udalerrri batzuek artean, hiru hauen eredua aurkeztu zuen Pariseko Klima Aldaketaren Goi bileran. Aipatzeko da erkidegoko hiriburuak eredu bezala erabiltzea horrelako ekitaldi batean. Gauzak ondo egiten ari diren seinale dela ondorioztatu daiteke.

Argi dago, oraindik lan asko dagoela aurretik eta aztertu diren zerbitzuen estaldura ehuneko ehuna ez izan arren, dimentsio guztietara zuzenduta dauden ekintzak eskaintzen dira hiriburuetan.



5. ONDORIOAK

Amaitzeko eta aurreko guztia esan ondoren, lan honen puntu aipagarrienak azpimarratuko ditugu ondorio modura.

Lehenik eta behin, Gizarte Erantzukizunaren helburu nagusiak daude. Honek, dimentsio hirukoitzaren elementu guztien errespetua eta zainketa bultzatzen du, garapen jasangarri bat lortzeko helburuarekin. Horretarako, entitateek ezarri eta erabiltzen dituzten politika eta zerbitzu ezberdinez baliatuko da, betiere hauek borondatezkoak direlarik. Enpresak, beraien aldetik, gizartearen ongizatea handitu eta ingurumena babesten ahaleginduko dira, irabazi ekonomikoak alde batera utzi gabe. Era horretan, hiru dimentsioen beharrak asetzen saiatuko dira, modu arduratsu batean. Gainera, jokaera egokia bada eta hirugarrengoak horren berri badute, enpresek epe luzeko abantailak lortu ditzakete.

Hala ere, ezin gara ahaztu, dena ez dagoela entitateen eskuetan. Zenbait kanpo faktoreek, epe luzeko asmo horientzako hartutako erabakiengan edota zehaztutako politikengan eragin zuzena eduki ditzake. Horregatik, entitateek etengabeko kontrola, eta behar izanez gero moldaketak, gauzatu beharko dituzte, galerak saihestu ahal izateko.

Baino, onura guztiak ez daude gizarte edo ingurumenari zuzenduta soilik. Izan ere, Gizarte Erantzukizuna gauzatzen duten entitateek ere etekinak lortu ditzakete politika hauek ondo erabiliz gero.

Esaterako, geroz eta ohikoagoa da, gizartearekiko erantzule diren izaerak saritzea. Gizartearen ongizatea eta ingurumena babestea da interes taldeek nahi dutena, kontrako politikak ezartzen dituzten enpresei zigortuz. Beraz, errespetatzen duten enpresentzako, hori lehiakideengandik desberdintzeko tresna bat izan daiteke. Baina tresna hori borondatezkoa da kasu guztietan. Hori dela eta, zenbait interes-taldeek interes publikoko diren aspektuei dagozkien politikak arautu eta behartzea eskatzen diete gizartearen ordezkari publikoei. Gaur egun, dagoeneko zenbait arau publikatu direla.

Baina hori ez da argudio bakarra. Izan ere, gaur egun, inbertitzaile askok ere geroz eta kontuago dituzte enpresaren egoera balantzean adimen-kapitala bezalako ibilgetu ukiezina gehitzea, zein enpresetan inbertituko duten erabakitzekeko garaian.

Beraz, horrelako politikak ezarri gero, entitatearen ospea handitu daiteke, lehiakideekiko desberdintasunak lortuz. Horrekin, enpresek desberdintzen abantailak lortzen dituzte, gizartearentzako onurak lortzean gain, beraientzat ere lortuz. Hori dela eta, geroz eta ohikoagoa da enpresak beraiei buruzko informazio ez-finantzarioa argitaratzea.

Argi dago, gaur egungo gizartean enpresek duten botere sozial handia dela, beraz, onuragarria da horrelako politikak ezartzen badituzte, beraiei etekinak sortzeko bada ere. Azken finean, modu batera edo bestera, gizarteari eta ingurumenari ere eragiten baitiete jarrera horiek eta ondorioz, onurak guztiontzat direla esan genezake. Horretaz gain, gizartean kontzientzia sortzeko ere baliagarriak izan daitezke politika horien ezarpena. Izan ere, askotan



entitate hauek, beraien produktu edo zerbitzuen bidez jendearen ikuspuntuan edota pentsatzeko eran eragina izan dezakete, ohitura edo pentsaera aldaketa bat ekarririk. Beraz, baliagarriak izan daitezke ez bakarrik hiru dimentsioetako ongizatea lortzeko baizik eta harrera hori gizarte osora zabaltzeko.

Jarraitzeko eta oinarrizko printzipioei begiratuz gero, gorai patuko genituzkeenak, gardentasuna eta egiaztatze printzipioak dira. Izan ere bi oinarri hauek ezinbestekoak dira entitatea eta interes-taldeen arteko komunikazioa sortzeko garaian. Lehenengoari esker, hirugarrenen enpresaren datuak lortu ahal izango dituzte, bere jarduerara eta hartutako erabakien berri eduki ahal izateko. Bigarrenarekin, aldiz, lortutako informazioa hori ziurra eta zuzena dena jakin ahal izango dute, beharrezko fidagarritasuna lortuz.

Beste printzipioak ere garrantzitsuak izan arren, aipatutako bi horien beharrezkoak eta oinarrizkoak iruditu zaizkigu, beharrezko informazioa eta segurtasuna eduki ahal izateko.

Arauei dagokionez, aurren aipatu bezala, arau minimoak argitaratuta egon arren, oraindik borondatezkoa den konpromisoa da. Hala ere, mundu mailan badauden garapen jasangarriaren aldekoak diren zenbait ekimen politika, batez ere, ingurumenarekin erlazionatuta daudenak. Berau, positiboa da, pixkanaka gaia zabaltzeko eta honen ezarpena areagotzeko.

Atentzioa administrazio publikoko entitateek gauzatzen duten lanean jartzen badugu, ikusi ahal izan dugun moduan, hemen ere ez dago sektore honetan Gizarte Erantzukizuna gauzatu eta zabaltzen dutela adierazten duen memoria formal bat igortzeko araurik. Hala ere, hauek, interes publikoko entitateak izanik, zenbait dokumentu justifikatzeko konpromiso legala dute. Behar legalak betetzean gain, gaur egungo gizartea zorrotzagoa bihurtzen ari da gardentasuna bezalako gaiei buruzko informazioa eskuratzeko garaian. Hori dela eta, sektore publikoak eskaera horiei erantzun behar dago, eta geroz eta ohikoa da Gizarte Erantzukizuneko politiken ezarpena eta zerbitzuen eskaintza.

Horretaz gain, sektore honek paper garrantzitsua joko dezake jarrera hauek zabaltzeko garaian. Izan ere, entitate publikoek erraztasun handiago dute gizarte osora ailegatzeko. Beraz, abantaila hori erabiltzea onuragarria izan zezakeen, kontzientzia hori ahalik eta gehien zabaltzeko. Haatik, konpromiso hori zabaltzeko, beraiek ere horren erakuste izan behar dute, jarrera hori eduki, gauzatu eta errespetatu beharko dutelarik.

Egia da, orokorrean, geroz eta ohikoagoak direla entitate publikoek konpromiso honi buruzko oinarriak barneratzea beraien funtzionamenduan, baita hura bateratzeko akordioak egiteko ahaleginak ere. Hori dela eta, Espainian Sektore Publikoari buruzko hainbat lege gauzatu dira dagoeneko.

Arauez gain, zehaztutako politikak eta jarduerak baloratu eta neurtzeko hainbat adierazle mota ere zehaztu dira. Neurri unitate hauen nondik norakoak argituta eta definituta egon arren, errealitatean ikusi ahal izan dugu, ez direla teoriarantz jartzen diren bezain ohikoak. Egia da, modu ezberdinak daudela konpromiso hori zein neurritan betetzen den baloratzeko. Baina adierazlearen ez da zabaltzeko. Izan ere, azterketa egiterako garaian, oso gutxitan egin dugu



topo neurketa tresna horrekin. Zenbaitetan, gardentasuna neurtzeko kasuetan adibidez, nabariagoak izan dira, zenbait entitate lokal zehaztuta zituztelarik. Baina orokorrean, esan bezala, ez dira erraz aurkitzen. Beharbada, entitateek ez dute hauen zehaztu eta erabiltzeko baliabiderik, edo besterik gabe, beharrezkoak ez direla pentsa dezakete. Erabilpen urriaren zergatia ez jakin arren, argi ikusi dugu hauen erabilera ia eza dela.

